

**hh**  
hik hasi

Elkarrizketa: Katty Homar  
Zubiletako eskola  
Bizibusa  
Hirukide ikastetxea  
Galdeidazu: etxekolanak  
Txantxariak telebista saioa  
Itziar Ituño

404  
2014



Euskal Herriaren historia, bertatik bertara


LUR ETA AMETS

NOR  
GARA?




# MAITASUNAK BADITU MILAKA AURPEGI


UXUE ALBERDI + JULEN TOKERO




Pupu eta Lore jeloskor daude.  
Maitatu al daiteke jelosiarik gabe?



Marimototsek bakarrik bizitza erabaki du.  
Bere beldurrez eta ametsez hitz egingo digu.



Pirritx maiteminduta dago, hezurretaraino,  
zeharo. Aitortzeak lotsa ematen dio,  
baina ezin du gehiago.



Porrotx lagunartean bizi da alai,  
baina ez da bakarrik egoteko gai.



elkar | Kitziporota

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## LUR ETA AMETS: EUSKAL HERRIKO HISTORIAN BIDAIDE

Ikastolen Elkartek, Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak Lur eta Amets egitasmoa aurkeztu dute: Euskal Herriko historia kontatzen du hainbat euskarritan, Euskal Herriko ikuspegiarekin landuta, eta haur nahiz gaztetxoei zuzenduta.

ELKARRIZKETA / 18

## KATTY HOMAR

Pedagogo, hezitzaile eta psikomotrizistak hitzaldia eman du Luzaroren jardunaldietan, eta magaleko jolasen garrantzia azpimarratu du. Bere ustez, haurrari berraseguratzeko-prozesua egiten laguntzen diote; bizitzako ezintasunen aurrean ziurtasuna bilatzen, alegia.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera ikastetxea, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.

**Diseinua:** GrafIk.

**Maketazioa:** Xangorin.

**Inprimategia:** ANTZA S.A.L  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2015-12-18).  
Kopurua: 3.800 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Olentzerok ekarri ez dizkigunak

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Lur eta Amets. Euskal Herriko historian zehar bidaide

18 ELKARRIZKETA

KATTY OMAR

“Haur batentzat bizitzea jolastea da, dituen beldurrekin eta munduarekin jolas egitea”

26 ESPERIENTZIAK 1

Zubiletako eskola

30 ESPERIENTZIAK 2

BiziBusa

32 ESPERIENTZIAK 3

Hirukide ikastetxea

36 GALDEIDAZU

DAVID CASTRILLO

Beharrezkoak al dira etxerako lanak?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Txantxariak telebista saioa

42 ATZEKO ATETIK

Itziar Ituño

# Hik Hasi haztea eta heztea maite dugunon komunitatea

4 € • 2015eko ABENDUA • EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

**hh**  
hik hasi

Konfiantzaren pedagogia  
Pi del Soldat: familiarizazioa  
Kirol hezitzailea  
Etxea buruan eta ibili munduan  
Autoezagutza  
Alluitz Natura  
Alex Tello

2015



“Ikaslea ahalduntzeko ideia izan behar dugu oinarri eskoletan, eta ez kontrolarena”

**RICHARD GERVER**



HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA 13. ZENBAKIA. 5 €

**Hazi Hezi**

GAIA:  
**Psikomotrizitatea**

ELKARRIZKETA: MARIAJE SARRIONANDÍA

**“Osasun kontuetan  
ere oso inportantea da  
umearekin hitz egitea”**

EZTABAIDAGAI

**Udalekuak: “praktikoak”  
akaso, eta egokiak?**

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# Olentzerok ekarri ez dizkigunak

## editoriala

HEZKUNTZA ARLOKO POLITIKAK EZ EZIK, HAZIERA ETA HEZIKETA ARDATZ IZANGO DUTEN POLITIKA OROKORRAK BEHAR DITUGU, ARLO GUZTIEI ERAGINGO DIETENAK



**U**rte berriarekin, zaharrak eta txarrak sutara botatzen ditugu, ilusio berriei irekitzen diegu atea, eta asmo handiei ekiten. Ez dira falta izaten promesak, erronkak eta ametsak.

Amets egiten jarrita eta eskatzen hasita, eska genitzake haur eta nerabe autonomo eta ekin-tzaileak, nortasuna dutenak eta euren kabuz pentsatzen dakitenak, kritikoak eta solidarioak, egoera aldakor eta ziurgabeari sormenarekin erantzungo diotenak.

Eska genitzake irakasle konprometituak, haurraren garapenarekin inplikatuak, euren jarduna ebaluatu eta etengabe hobetzeko prest daudenak, formazioari garrantzia ematen diotenak, eta, beste ezeren gainetik, haurra erdigunean jartzen dutenak.

Eska genezake komunitatera irekirik dagoen eskola, haur bakoitza bere osotasunean hartzen duena eta bere bidea egiten uzten diona, kontrola eta lehiak alde batera utzita pertsonengan sinesten duena, eta gizarte hobe bat eraikitzeko lan egiten duena.

Eska genitzake eskolarekin elkarlanean aritzen diren gurasoak, irakasleengan konfiantza dutenak eta haurren heziketaren zama guztia eskolaren gain uzten ez dutenak.

Eska genezake hezkuntza erdigunean jartzen

duen gizartea, haur eta gazteen heziketan parte hartzen duena, pertsonen haziera, hezieta eta garapen osasuntsuari garrantzia ematen diona eta haur, gazte zein heldu zoriontsuak lortzeko bitartekoak jartzen dituena.

Eta hori guztia posible izan dadin, eska genezake, gertuko administrazioaren babesna nahiz agintarien konpromisoa, Katty Homar psikomotrizista eta pedagogoak aldizkari honetan dioen moduan, hezkuntza arloko politikak ez ezik, haziera eta heziketa ardatz izango duten politika orokorrak behar ditugulako, arlo guztiei eragingo dietenak eta benetako aldaketa posible egingo dutenak.

Baina eskatzearekin soilik ez da nahiko, amets egitearekin bakarrik ez dira gauzak lortzen. Ondo daki hori Olentzerok bere eskariak eta ametsak ase gabe utzi dizkion haurrak.

Desio dugun hori lortzeko bidea urratzen hasiak gara. Badaude amesten ditugun bezalako haurrak, eskatzen ditugun bezalako irakasleak, gurasoak, eskolak eta komunitateak, tokian tokian, urratsak ematen eta eredu izaten ari diren hezkuntza-esperientziak. Balia dezagun, bada, 2016a bide horretan sakontzeko.

Hik Hasin, beste urte batez ere, ametsak egia bilaka daitezten lanean jarraitzeko prest gaude eta gurekin etorri nahi duen edonorentzat zabalik ditugu besoak.

**Senekaren “dakidan bakarria da ez dakidala ezer” hura horrela diote gaurko batzuek: “Ez dakigu zer den ez dakiguna”. Alde handia batetik bestera.**

Iñaki Antigüedad



## 0-3 ADIN TARTERAKO FOMAZIOAK LEHEN PROMOZIOA EMAN DU

Hik Hasi egitasmoak 0-3 adin tarteko hezitzaileei zuzenduriko formazio-zikloa antolatzen du, bi urteko iraupenekoa, eta lehen promozioak bukatu berri du ibilbidea. Hori ospatzeko, bazkaria egin zuten Hik Hasi komunitateko kideek, formazio-zikloko irakasleek eta ikasleek Donostian. Bazkari horren aurretik, ekitaldi labur batean ikasketak akreditatzen dituzten diplomak banatu zizkieten ikasleei. Besteak beste, Loris Malaguzzi italiarrak eta Emmi Pikler hungariarrak utzitako ikasgaiak jaso dituzte formazio-zikloko parte-hartzaileek.

## SEASKAKO 2 URTEKO GELAK AINTZAT HARTUKO DITU HEZKUNTZA MINISTERIOAK

Frantziako Hezkuntza Ministerioak onartu egin du Seaskaren azken urteotako aldarrikapena, eta hemendik aurrera aintzat hartuko ditu ikastoletako 2 urteko haurren gelak. Beraz, bere gain hartuko ditu gela horietako irakasleen soldatak, baina soilik "lehenetsuneko eremuetan" eta "irizpide soziolinguistikoen arabera aztertze aukerarekin". Mugak muga, Seaskak garaipentzat jo du erabakia.

## DBHrako 500 LANPOSTU BAINO GEHIAGO ESKAINIKO DITU JAURLARITZAK 2016an

Sindikatuak azaldu dienaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2016an 500 lanpostu-tik gora eskainiko ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako, espezialitateetan banaturik. Lan eskaintza 2016ko erdialdean egingo dute, eta horrekin "ahal beste lanpostu egonkortzea" da Jaurlaritzaren asmoa. Dena dela, sindikatuentzat ez da nahikoa kopuru hori; esaterako, ELAk salatu du 4.500 lanpostu egonkortzeko beharra dagoela, eta horiei azken urteetako murrizketekin galdutako lanpostuak gehitu behar zaizkiela. Beraz, sindikatuak uste du 6.000 lanpostu eskaini behar lituzkeela Jaurlaritzak. Nafarroan, Jose Luis Mendoza Hezkuntza kontseilariak berretsi du sindikatuarekin adostuko duela 2016rako eskaintza. Momentuz 320 lanpostu eskaintzea proposatu du, horietako 92 gazteleradun elebakarrentzat.

Hain zuzen Nafarroan, Geroa Baik eskatu dio Espainiako Hezkuntza Ministerioari Hezkuntzarako egiten diren LEP lan eskaintza publikoetan irakasleen atzerriko hizkuntzetako ezagutza mailak aintzat hartzeko bidea irekitzeko. Hartara, hizkuntza horietan eskolak emateko prestatutako irakasleak hautatzeko deialdiak egiteko aukera izango lukete.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## PAI PROGRAMA IKASTETXE GEHIAGOTARA EZ ZABALTZEA ERABAKI DU NAFARROAKO GOBERNUAK

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak PAI programaren lehen ebaluazioa egin du udazkenean zehar, 21 ikastetxetan, eta lehen ondorioak argitara eman ditu. Besteak beste, ebaluazio-prozesuan ikertutakoaren arabera, ondorioztatu dute aurreko gobernuak programa ezartzerakoan ez zuela aintzat hartu txosten teknikoek esandakoa. Izan ere, ingeles saileko teknikariak hamar eskoletatik batean bakarrik agertu ziren PAI programa indarrean jartzearen aldeko; adituak kontra egon arren, Gobernuko ordezkariak programa ezartzea erabaki zuten. Gainera, eskola-kontseiluek eta klaustroek onartu gabe egin zuten aurrera, eta familiei nahiz irakasleei galdetu gabe.

Horretaz gain, ebaluazioaren arabera, planifikazio orokorrik gabe ezarri zuten programa, eta, ondorioz, ikastetxeen gain geratu zen ardura hori. Finean, Hezkuntza Sailak uste du "araurik eta protokolorik gabe" ezarri zela PAI deiturikoa.

Gauzak horrela, Hezkuntza Sailak erabaki du PAI programa ez zabaltzea ikastetxe gehiagotara. Hori bai, dagoeneko indarrean dagoenetan mantendu egingo du: "Presaka eta inprobisatuz aritu izanaren zantzuak sumatu arren, uste dugu zentro horietan sorturiko sinergiak aprobetxatu daitezkeela", adierazi dute.

## Irakasleak ebaluatuko dituzte irailetik



Heziberrik zehaztutakoaren bidetik, Eusko Jaurlaritzak irailetik aurrera irakasleak ebaluatzen hasiko da. Azken hilabeteetan Espainia mailan gai horren inguruan hautsak harrotuta ibili dira, zenbaitek ebaluazioaren emaitzek soldata baldintzatzea proposatu baitu, baina, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek argitu duenez, ez da hori beraien asmoa, hori ranking-ak egiteko litzatekeelako eta horren aurka daudelako. Bere esanetan, ebaluazioaren helburua da "irakasleen hobekuntza, beste helbururik gabe".

Heziberrin garrantzia eman diote ikaslearen irteera profila zehazteari, hau da, hezkuntza ibilbidea amaitzean zein gaitasun izan behar dituen definitzeari. Bide beretik, Eusko Jaurlaritzak adierazi du irakasleen profila ere zehaztu behar dela. Hain zuzen, ebaluazioetan hori neurtuko dute. Irakasleari azalduko diote behar duen profilararen arabera zein egoera daukan.

Datorren ikasturtearekin, irailan jarriko dute indarrean ebaluazio-prozesua, eta orain ari dira horretarako dekretua prestatzen. Xehetasunik ez zuten aurreratu sailburuak, baina iragarri zuten ebaluazioetan aintzat hartuko dituztela ikasleen iritziak ere.



## FINLANDIAN IKASGAIK EZABATUKO DITUZTE 2016. URTETIK AURRERA

Eskola-orduak materiaka eta ikasgaika banatu ordez, gaitasunak proiektuka eta egoera errealetan oinarrituta landuko dituzte ikasleek Finlandian, 2016tik aurrera. *Phenomenom Based Learning* (Gertakarietan Oinarritutako Ikaskuntza) metodoa ezarriko dute ikastetxeetan. Horrek esan nahi du mundu errealeko gertakariak izango direla ikaskuntzarako abiapuntu, gertakariak bere osotasunean hartuz eta horien gainean hainbat materia landuz, modu integratuan eta integralean. Eta ez, orain arte bezala, materiak modu isolatuan —alegia, ikasgaika— jorratuz. Ikasgaien arteko mugak gainditu eta modu naturalean diziplina-arteko pentsamendua bultzatzea da asmoa, gertakariei ikuspegi ugariatik heldu ahal izateko, erreminta ugari erabiliz. Errealak diren —eta beraz zentzua ikusten dieten— gertakarien inguruan landuko dituzte ikasleek informazioa, ezagutza eta gaitasunak. Ikerketa eta praktikotasuna ere sustatzen ditu metodoak.



## ZUBEROAKO LEHEN HAURTZAIN ETXE EUSKALDUNA SORTUKO DUTE MAULEN

Ttipi Ttapa elkarteak Xubukota euskarazko haurtzain etxea zabalduko du Maulen 2016ko urtarrilean. Zuberoan haurtzaintza zerbitzuak osoki euskaraz eskaintzen dituen lehen tokia izango da. Bi haurtzainek jardungo dute bertan, eta bakoitza lau haurrez arduratuko da. Eraikinak 97 metro koadro izango ditu, eta Mauleko erdigunean egongo da kokaturik. Egoitza egokitu eta beharrezko materialak eskuratzeko, *crowdfunding* kanpaina jarri dute abian, 3.000 euro lotzeko xedearekin. Ekarpenak [xubukota.org](http://xubukota.org) webgunean edota [karena.eu](http://karena.eu) atarian egin daitezke.

## TXATXILIPURDIK 'MUNDUKO JOLASAK' CD-KO EDUKIAK WEBGUNEAN JARRI DITU

Txatxilipurdi Elkarteak munduko jolasen bilduma eskuragarri jarri du [txatxilipurdi.eus](http://txatxilipurdi.eus) webgunean. 2005. urtean argitaratu zuten bilduma CD formatuan. 10 urte geroago, CDak amaituta, bertako edukia webgunean edonoren eskura jartzea erabaki du elkarteak.

Euskal Herriaren aniztasun kulturaren isla, inklusioa lantzeko hezkuntza-baliabide izateko bokazioz sortu zuen Txatxilipurdi *Munduko Jolasak* bilduma. Jolasaren bidez, kulturen arteko hurbilpena, errespetua eta harreman dinamikoak bultzatzea dute xede.

100 jolas baino gehiagok osatzen dute bilduma. Munduko bost kontinenteetako jolasak ageri dira bertan eta jolas bakoitzeko fitxa bat eranstean da. Horietan jolaserako egokia den adina, jolaserako beharrezko materiala, lantzen diren alderdiak eta jolasaren inguruko azalpenak jasotzen dira.





# HIZPIDE IZANGO DA

## AMARA BERRI HEZKUNTZA-PROIEKTUA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DA OTSAILAREN 26AN ETA 27AN



Lan egiteko moduagatik nahiz hezkuntzaren gainean duten ikuspegiagatik berritzaile eta eredugarri izan daitezkeen hainbat ikastetxeren esperientzia ezagutarazteko jardunaldiak antolatzen dihardu Hik Hasik 2015-2016. ikasturtean, bereziki Lehen Hezkuntzan lanean diharduten profesionaleri zuzenduta.

Joan den azaroan, Kataluniako El Martinet ikastetxearen proiektua ezagutaraziz eman zitzaion hasiera jardunaldioi. Otsailaren 26an (18:00-20:30) eta 27an (9:30-13:30), berriz, Amara Berri sistema ezagutzeko aukera izango da, Donostiako Marlanseko eraikinean dagoen zentroan bertan egingo den lan-saioan. Izenez oso sonatua den arren, ezagutzen ote dugu benetan nolakoa den Amara Berriko hezkuntza-eredua?

35 urte baino gehiagoko ibilbidea badu ere, hezkuntza eragile askorentzat erreferente izaten jarraitzen du Amara Berri. 1979an Loli Anaut buru zuen irakasle-taldeak sortutako hezkuntza-egitasmoa, uneotan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 19 ikastetxetan dago martxan. Adin-nahasketa, bizitza erreala oinarri duten testuinguruak, haurren interesen arabera ekintzak eta maila ezberdinetan lan egiteko aukera ematen duten jarduerak dira, besteak beste, Amara-Berri hezkuntza ereduaren arrakastaren gakoak.

Jardunaldian izena emateko epea irekita dago jada. Informazio gehiago eskuratzeko nahiz matrikula egiteko [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunera jo behar da edota 943 371408 telefono zenbakira deitu.

## BIZKAIAN HIK HASI SORTZEKO BILERA EGINGO DA URTARRILAREN 12AN

Urrats berri bat emango du Hik Hasi Egitasmo Pedagogikoak eta Bizkaian ere elkarrekin erregistratuko du. Orain arte Gipuzkoan soilik zuen egoitza, baina hemendik aurrera Bizkaian ere izango du. Hori guztia martxan jartzeko bilera irekia egingo da urtarrilaren 12an, 17:30ean, Leioako Irakasle Eskolan. Euskal hezkuntzan interesa duen edonork har dezake parte bertan. Guztiak izango dira ongi-etorriak.

## ZIENTZIAKO IRAKASLEENTZAT GENERO-BERDINTASUNEAN TREBATZEKO TAILERRA

Elhuyar Fundazioak eta Eibarko Berritzeguneak antolatuta, STING proiektuaren barnean, genero-berdintasunean trebatzen laguntzeko metodologia eskainiko zaie zientzia-irakasleei. Urtarrilaren 26an egingo da ikastaroa Eibarko Berritzegunean, 9:30etik 16:30era. Matrikula egiteko azken eguna urtarrilaren 19a da, edota plaza-kopurua bete arte (gehienez, 26 lagun). Ikastaroaren helburua da zientzia, teknologia eta matematikaren irakaskuntza hobetzea, irakasleak genero-ikuspegiaren garrantziaz kontzientziaz, eta aipatutako ikasgaien irakaskuntzan genero-ikuspegia txertatzeko jardunbide egokiak zabaltzea. Informazio gehiagorako [g03.berritzeguneak.net](http://g03.berritzeguneak.net) webgunera jo daiteke.

## ESTIMULAZIO GOIZTIARRARI BURUZKO IKASTAROA

Nuria Sanchez Povedano Bartzelonako Montserrat ikastetxeko psikologo eta orientatzailearen eskutik, estimulazio goiztiarraren inguruko ikastaroa egingo da Tolosako Hirukide ikastetxean, urtarrilaren 15ean (17:00-20:00) eta 16an (9:00-13:30 eta 15:00-19:30).



Euskal Herriko historia, Euskal Herritik kontatua, haur eta gaztetxoentzat. Horixe da Katxiporretak, Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak aurkeztu berri duten 'Lur eta Amets' proiektuaren funtsa. Hainbat euskarrik osatzen dute egitasmoa, ipuinak, testuliburuak eta jolasak tarteko, eta Lur eta Amets izeneko anai-arreba bikiak dira guztietan protagonista. Era horretan, gazteenei modu ludiko eta erakargarrian euskal historian zehar bidaia bat egitea proposatzen diete, hasi Historiaurretik eta gaur egun arte.

# GAIA: LUR ETA AMETS

## Euskal Herriaren historian zehar bidaide

Lurraren sorrerarekin hasi, eta ETaren jardun armatuaren amaieraraino, Euskal Herriaren orain arteko historia osoa biltzea du asmo *Lur eta Amets* egitasmoak, haurrei eta gaztetxoei kontatzeko; Euskal Herritik bertatik kontatua, eta bertako ikuspegiarekin. Erronka horri heldu diote Katxiporretak, Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak. 4 urtez egosi dute, eta udazken honetan aurkeztu dute emaitza. Eta badirudi oraindik ere uzta horrek baduela alerik emateko, Elkar argitaletxeko zuzendari Olatz Osaren esanetan, “aurkeztutakoa abianpuntua baita”. Halaxe adierazi zuen proiektu honetan lan egin duten egile eta eragileekin batera San Telmo museoan eginiko aurkezpen-ekitaldian.

### Hamaika irizpide, hamaika euskarritan


Orain arte, hainbat euskarri argitaratu dute haurrei eta gaztetxoei Euskal Herriko historian barrena bidaia proposatzeko: 200 orri inguruko ezagutza-liburua, ilustrazio bizi eta handiz hornitua; ipuin-sorta; mahai-jolasa; webgunea; ikusentzunezkoa eta abestia. Hainbat irizpide izan dute kontuan horietan guztietan, egitasmoaren koordinatzaile lanak egiten dituen Elkar argitaletxeko Aintzine Mendizabalek azaldu bezala. Alde batetik, zorrotzasuna izan dute iparorratz eduki historikoak lantzerakoan. “Historia dibulgazio-liburua

da proiektu guztiaren oinarria, eta liburu zorrotz eta zehatza egin dugu, oinarri zientifikoekin”. Gainera, historiaren ikuspegi integrala izaten saiatu dira, hau da, historia politikoaz harago joateko bokazioa izan dute. Izan ere, Mendizabalen esanetan, “edozein herri ez dago eraikia bakarrik bere erakunde, lege, eskubide eta gerren gainean. Herriak erakitzen dira, baita ere, bere hizkuntzen gainean; bizimoduak, bizitokiak, ofizioak, jolasak, arteak, literaturak, musikak, aisialdiak... definitzen ditu”.

Horrekin lotuta, “herri xeheak eguneroko bizimoduan erakitzen duen historia hori ere” aintzat hartu dute, eta ez soilik “letra larriz idazten den historia”. Izan ere, uste dute Euskal Herria eredu garri izan dela horretan, antolatze, erabakiak hartzeko nahiz “botereari aurre egiteko” alternatiba propioak eraiki dituelako. Herritarren bizimodua jasotzeko desira horren bidetik, ohiko historia liburuetan bigarren mailan agertu izan diren emakumeak argitara ateratzeko borondatea izan du egitasmoak. Horren adibide, *mulier sapiens* delakoaren presentzia ezagutza-liburuaren hasiera-hasieran. “*Gure arbaso zaharrak* gaia lantzen hasi eta marrazki bat egiteko unea iristean, nahi gabe guztioi etorri zitzaigun burura *homo sapiens* gizonezko baten eboluzioa irudikatzea. Eta berehala konturatu ginen horrela ez gindoazela ondo”. Irudia aldatu zuten, emakumezko *homo sapiens* baten bidez irudikatuz giza-eboluzioa, eta hortik aurrera lantaldearentzat

# GAIA: LUR ETA AMETS

Euskal Herriko historian zehar bidaide



Emakumeari dagokion presentzia bermatzeari garrantzia berezia eman diote proiektuan; hala, giza-eboluzioa *Mulier sapiens* delakoaren bidez irudikatu dute.

premis bat izan da atal nahiz argazki guztietan emakumearen presentzia bermatzea.

Horretaz gain, helburu izan dute historiaren kontakizun dinamikoa egitea, historia irakurle berri bakoitzarekin berridazten delakoan. “Ez dugu kronika hau oinarri zurrun baten gainean eraiki nahi izan, baizik eta malgua eta parte-hartzailea izatea nahi izan dugu”. Ildo horretatik, proiektuari berari izaera dinamikoa eta parte-hartzailea eman nahi izan diote; eta, partaidetza hori, webgunearen bidez lortu nahi dute, batez ere.

Azken irizpide gisa, irudimena, umorea eta jolasa egitasmoaren osagai bihurtzea izan dute xede. Batetik, “irudimena beharrezkoa delako zientzia iristen ez den lekuetara iristeko,

irudikatzeko eta interpretazio berriak egiteko”. Bigarrenik, jolasa baliabide egokia delako edukiak nahiz balioak barneratzeko. Eta, azkenik, umoreak “ez esatekoak zeharka esateko, edo egia borobilak zalantzan jartzeko” abagunea sortzen duelako.

## Bidelagunak historian barrena

Eta, jolas horren baitan, Lur eta Amets anai-arreba bikiak dira protagonista nagusiak, “proiektuaren bihotza”, eta liburu eta ipuinek historian murgiltzeko proposatzen duten bidaia horretan irakurlearen bidaide nagusi izango dira. “Hasieratik pentsatzen genuen fikzioaren beharra izango genuela haurren eta gazteen konplizitatea lortzeko, eta,

gainera, historia barrutik biziartzeko. Izan ere, amonaren pertsonaiak ere aholkatzen die askotan: ez sinetsi esandako guztia, ikusi zuen begiekin, bizi. Ariketa hori egiten dute Lur eta Ametsen historiaren barruan”, dio Mendizabalek. Gainera, irudikatzen dute “proiektu honen muina: lurra eta ametsak, gure ametsak betetzeko lurra”.

Mendizabalek aipaturiko amona Andere da beste pertsonaia esanguratsuetako bat. Ezagutza irudikatzen du; “asko daki, asko bizi izan delako”. Pertsonaia honek bultzatuko ditu Lur eta Ametsen historian barrena bidaiatzera.

Abentura horietan, beti izango dute Baltaxar katua alboan. Pertsonaiarik umoretsuena da hori, mesfidatia eta mokofina, baita zenbaitetan “deseroso samarra ere, gertaera historiko batzuen lekuko xaxatia izango delako”.

## Ilustrazioak, fikziorako ate

Pertsonaiak dira, beraz, irakurlea historiara erakartzeko amua den fikzioaren muina. Eta, bai pertsonaiak bai fikzioa bera, ilustrazioen bidez txertatzen dira historian. Beraz, alde grafikoak garrantzia handia izan du egitasmo honetan. Hain zuzen, marrazki handiz eta erakargarriz lagunduta daude bai ezagutza-liburuko bai ipuinetako testu guztiak.

Juanba Berasategik koordinaturiko ilustratzaile-taldeak egin ditu marrazki horiek. Esku asko aritu arren Lur eta Amets nahiz gainerakoak gorpuzten, argi izan dute “gero ezin zirela hamaika esku ikusi, bakarra baizik”. Lantaldearekin adostu zituzten egoera historiko bakoitzerako eszena errepresentatiboak, eta dokumentazio lan sakona egin dute eszena horiek osatzeko. Berasategik koordinaturiko talde horretan, Dei Gaztelumendik eta Patxi Pelaezek izan dute pertsonaiak sortzeko ardura.

Marrazki horiek lagunduriko testuak, aldiz, Manu Arregik eta Jesus Mari Olaizola *Txiliku*-k idatzi dituzte ezagutza-libururako, eta Uxue Alberdik eta Unai Elorriagak ipuinetarako.

## Elkarlanaren miraria

“Zergatik guk? Zergatik orain?”, galdera horiek jarri zituen mahai gainean Elkarreko zuzendari Olatz Osak egitasmoaren aurkezpen ekitaldian. Bileran baten hondarretan norbaitek “erdi brometan erdi serio” botatuko ordagoaren atzean, “bestelako arrazoi sendo eta sakonak” dituela nabar-

mendu zuen.

Izan ere, hezkuntzan Ikastolen Elkarrekin, aisialdian Katxi-porretak eta edizio-lanetan Elkarrek gogoeta antzekoa egin izan dutela aitortu zuen: Euskal Herriaren historia Euskal Herriko ikuspegitik berreraiki eta eskuragarri jartzearen garrantzia. “Beharrezkoa da haurrei eta gaztetxoei Euskal Herriaren historia modu atsegin eta erraz batean aurkeztea, memoria bildu eta ezagutza hori gure ondorengoei transmitzea”, Osaren esanetan.

Dena dela, aitortu zuenez, bakarka arituta nekez lortuko zuen hiru eragileetako inork horrelako egitasmo bat abiatzerik. Baina 4 urteko ibilbideak erakutsi die “bakarka ezinezkoak diren bideak urratu daitezkeela elkarlanean”.

Hain zuzen, hiru eragileek bakoitzak bere esparrutik, baina guztiek norabide berean, Euskal Herriko curriculum propioa osatzeko egin duten lanaren testuinguruan kokatu zuen Lur eta Amets egitasmoa. “Proiektu hau ibilbide hori osatzera, aberastera eta sendotzera dator”.

## Historiak istorioak metatzen jarraitzen du

Lau urte daramate lanean proiektu honetan Katxi-porretak, Ikastolen Elkarrekin eta Elkarrek, eta lanerako gogoz diraute. Izan ere, hasieran Osak esan bezala, aurkezturikoa egitasmoaren abiapuntua izatea nahi lukete. Historiak istorioak metatzen jarraitzen du, eta horiek kontatzeko gogoz daude.

Eta, etorkizunean ere aleak ematen jarraitzeko, elkarlana eta egitasmoa batzera deitu zituen Osak eragileak, eta bidelagun izatera gonbidatu. Izan ere, “konbentziturik gaude indarrak metatuz datozen belaunaldientzat, hezkuntza komunitatearentzat, eta, oro har, euskal gizartearentzat baliagarria den ekarpena egingo dugula”.

Gainera, Osaren ustez, abagune egokia da egitasmo honentzako, baita urrats gehiago egiteko ere. Besteak beste, telebistarako haur eta gazteentzako telesail bat egiteko gogoia adierazi zuten, Eneko Olasagastik eginiko spot moduko ikus-entzunezko laburretik abiatuta: “Aurrera begira egin nahiko genukeenaren adibidetxo bat da, orain formatu laburrean dagoen hori benetan nahiko genuke luzatu eta luzemetraia edo telesail bilakatu”. Gainerako euskarriek bezala, aurkezpen ekitaldira hurbildutakoaren artean harrera beroa izan zuen ikus-entzunezkoak, baina asmoa gauzatzeko, ezinbestean behar dituzte egitasmoa finantzatzen lagunduko duten bidelagun berriak.

GAIA:  
LUR ETA AMETS

Euskal Herriko historian zehar bidaide

# Historia esku artean


A skotariko euskarriak aukeratu dituzte Katxiporretak, Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak Lur eta Ametsen eskutik historia kontatzeko. Horien artean batzuk esku artean hartzeko modukoak, paperaren xarmadunak: ezagutza-liburua eta ipuin-bilduma, hain zuzen ere.

Ezagutza-liburuko testuak Manu Arregik eta Jesus Mari Olaizola *Txiliku*-k osatu dituzte, “izan ginena ezagutzera eman, oraina sortu eta etorkizuna irudikatzeko”. Egitasmo osoan edukietan zorrotzasun zientifikoa mantentzea izan dute xede, eta bereziki historiaren dibulgazioa egitea helburu duen ezagutza-liburuan. Dena dela, “ziurtzat jotzen zaizkigun gauzak zalantzan jartzeko borondatearekin” uztartu dute zorrotzasun hori Arregik eta Olaizolak. Hori guztia izan dute kontuan liburua osatzen duten 8 gai edo arloetan; horietako bakoitzak, ardatz kronologikoari jarraitzen dio, eta, beraz, “historiaren gurpilari 8 bira ematen dizkio liburua”, aurkezle lanak egin zituen Maddalen Iriarte kazetariaren arabera. Honakoak dira arlo horiek:

ten dizkio liburua”, aurkezle lanak egin zituen Maddalen Iriarte kazetariaren arabera. Honakoak dira arlo horiek:

- Gure antzeko gizakia Euskal Herrira iritsi arte
- Euskal Herriko gizakien bizimodua
- Hizkuntzak Euskal Herrian
- Bizitokiak eta bizimoduak gaur arte
- Lanbideak, ekonomia, zientzia eta industria
- Ohiturak, mitologia eta erlijioa Euskal Herrian
- Euskal Herriko jolasak, jokoak eta kirolak
- Artea: musika, pintura, literatura, zinema...

Fikzioari eta pertsonaiei bide egiteko, orrialde guztiak marrazki handiz eta koloretsuz jantzita daude. Ilustratzaile-lantalde batek egin ditu marrazkiok, Juanba Berasategiren koordinaziopean; hain zuzen, Jose Anjel Lopetegi, Inaki G. Holgado, Angel Gomez Espinosa eta Jorge Madejon aritu dira horretan.



Ezagutza-liburuan testuak eta ilustrazio koloretsuek osatzen dute kontakizuna.

## Beste 6 ipuinen esperoan

Ezagutza-liburuarekin batera, ipuin-bilduma da esku artean hartu eta paperean irakur daitekeen beste euskarrietako bat. Hauetan ere ilustrazioek protagonismo handia hartzen dute edukietan. Kasu honetan, Patxi Pelaezen eskua dago ilustrazioen atzean. Testuak, aldiz, nagusiki Uxue Alberdik idatziak dira, bat izan ezik, bildumako bigarrena Unai Elorriagak egin baita.

Uxue Alberdik aurkeztu zuen ipuin-bilduma San Telmoko ekitaldian. Bildumako lehen 3 ipuinak izan zituen esku artean, horiek baitira orain arte argia ikusi duten bakarrak. Dena dela, dagoeneko beste 3 “labean” daude, eta horietaz gain beste 3 etorriko direla argitu zuen. Alberdi saiatu da Lur, Amets, Andere eta Baltaxar pertsonaiei nortasuna ematen, “izaera bat markatzen eta hori mantentzen ipuin guztietan barrena”. Bestetik, egitasmo guztian zehar egin beharreko uztarketa gauzatzea egokitu zaio berari ere; hau da, zorrotasun historikoa kalitatearekin eta erakar-garritasunarekin lotzea, alegia: “Ipuin bakoitza gaur egun identifikagarria den espazio batean kokatzen saiatu naiz, pentsatuz ume eta gaztetxoentzat polita izan daitekeela benetan toki horietara joan eta irakurri eta imaginatu duten hori gaur ikusten dutenarekin kontrastatzea”.

### 1.- ‘Memoriaren ehiza’

Historiaurrean gertatzen da lehen liburu hau. Alberdiren esanetan, hau da liburu guztietan “agian aurreikusgarriena, edo tipikoena”. Ekaingo kobazuloan kokatzen da eta ehizaldi bat kontatzen du. Lur, Amets, Andere eta Baltaxar pertsonaiak aurkezteko baliatu du Alberdik lehen ipuin hau; “hemen ezagutuko ditugu akzioan”.



### 2.- ‘Atzaparra zubian’

Bigarren hau da Unai Elorriagak bildumarako idatzirikoa alea. Erromatarren garaian kokatzen da, Antzina Aroan, alegia, Nafarroako Baztan bailaran. Erromatarren eta euskaldunen arteko bizikidetzak kontatzen du. Erromatarrek preso hartuko dituzte Lur eta Amets, eta lan behartuetara



kondenatu. Hala, zubi bat eraiki beharko dute.

### 3.- ‘Haizeak eraman zuen mapa’

Hirugarren honetan, Behe Erdi Aroan gertatzen da kontakizuna, 824. urtean, Nafarroan. Tuteran musulmanera bidaiatuko dute Lurrek eta Ametsek, eta Eneko Aritza ezagutuko dute, baskoien buruzagia. Honek ordurako asmoak ditu Iruñeko Erresuma osatzeko, eta, horretarako, oso lagungarria izango zitzaion mapa bat...



### 4.- ‘Gurarien harria’

Goi Erdi Aroan egiten dute jauzi pertsonaiek ipuin honetan, zehazki 1300. urte inguruko gremioen Gasteizera. Amona Andere galdu egingo da eta ginkana moduko bat osatu beharko dute Lurrek eta Ametsek amonarengana iristeko, kaleetan barrena artistak batuz. Modu horretan, hainbat gremiotako maisuen bidez, hiriko bizimoduaren eta ohituraren berri izango dute.

### 5.- ‘Laurogei amonen altxorra’

Aro Modernoan jada, Zugarramurdi kokatzen da kontakizuna, inkisizio garaian. Magia, ezagutza naturala, herritarren arteko elkartasuna... ezagutuko dute Lurrek eta Ametsek, baita sorgintzat hartu zituzten emakumezkoen maitasun istorio ederrak ere.

### 6.- ‘Baiona Ttipiko piratak’

1600. urtean kokatzen da, hau ere Aro Modernoan. Parisko Gorteko dama batzuen istorioak eta pirata abenturazale batzuenak gurutzatuko dira ipuin honetan, dantzaldi batera joateko soineko baten aitzakian. Izan ere, dantzaldia antolatu dute hirian, eta, dotore jantzita joan ezean, ez dute sartzen uzten. Beraz, Lurrek eta Ametsek oihal garestiak lortu beharko dituzte, dantzaldira joan eta txokolatea probatu ahal izateko.


Gainerako hiru liburuek oraindik ez dute izenik, horietatik bi idatziak dauden arren. 7go liburua izango denean, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako Bilbo bor-borka ezagutuko dute pertsonaiek: langile-borroka, emakumeen borroka, abertzaletasunaren sorrera... 8go liburuan, aldiz, frankismo garaiko Donostiara bidaiatuko dute. Elvira Zipitria maistraren *alter ego* bilakatuko da Amona Andere, eta, bere bidez, etxean martxan jarritako ikastolak eta klan-destinitatea ezagutuko dute. Azkenik, 9go liburuan, XX. mendeko 80ko hamarraldira egingo dute jauzi pertsonaiek.

# Historiarekin jolasean

Ezpainetan ezta bezala izan zen aurkezpen-ekitaldian erakutsiriko ikus-entzunezko laburra. Lur, Amets eta gainerako pertsonaiak mugimenduan ikusi ahal izan zituzten bertaratutakoek, ilustrazioan haragituak, ahots eta guzti. Historian zehar proposaturiko bidaia hori beraien azalean biziz, Amona Anderek eskatu bezala. Harrera beroa izan zuen San Telmon bildutako eragileen artean, baina, ezta ahoratzeko tarterik egongo al da?

Lur eta Amets proiektua abian jarri dutenek luzemetraia edo telebistarako saio bilakatu nahi dute 3 minutuko spot hori, haur eta gaztetxoei zuzendua, baina argi dute horretarako bestelako eragileen laguntza beharko dutela, orain arteko kideen artean aurrera eramatea zaila izango baita, besteak beste ikuspegi ekonomikotik. Eztiaren zain gelditu beharko, beraz, momentuz.

Ikus-entzunezko laburraren gidoia Eneko Olasagastik egina da, telesailetan eta zineman zuzendari nahiz gidoilari gisa eskarmentu handiko pertsona. Spotari laguntzen dion musika, berriz, proiekturako espreski sorturiko *Gure ametsaren lurra* abestikoa da. Abestia Xabier Zabalak sortu du, eta Eñaut Elorrieta eta Uxue Alberdik jarri diote ahotsa. Bideoa ikusgai dago proiektuaren ingurukoak bil-




Selfie historikoak bidal daitezke webgunera.

tzen dituen [www.luretaametshistorian.eus](http://www.luretaametshistorian.eus) webgunean.

## Sarean jolasteko eta ikasteko

Webgune horretako sarrera-orrian dago bideoa, pertsonaien aurkezpenarekin batera. Webgune bigarren atal *Jolastu eta ikasi* izena darama, eta, izenaren jabe, horretarako da, alegia, jolastuz ikasteko. Bi joko proposatzen ditu horretarako. *Haitzulo harrigarria* izenekoa da bata, eta, bakarka ere jolastu daitezkeen arren, taldean aritzeko aukera ere ematen du, binaka, hirunaka edo launaka.







Dadoa bota eta kutxatilategian barrena aurrera egin behar dute jokalariek haitzulora iritsi arte, historiaren inguruko galderai aurre eginez. Erantzun zuzena emanez gero, txanda mantenduko dute jokariak.

Antzeko dinamika du *Historian barrena jauzika* jolasak ere. Hemen ere banaka edo taldean jolastu daiteke. Galderari erantzun beharrean kasu honetan, gertaera historikoak garai zehatz batean kokatu beharko dituzte jokalariek, Baltaxar katuari aurrera egiten laguntzeko. Baltaxar Amona Andereren besoetara lehenen eramaten duenak irabaziko du.

Webguneko hirugarren atalari *Zu ere historialari* izena eman diote, eta, hain zuzen, parte hartzeko aukera ematen du. *Selfie* historikoak egitea proposatzen dute bertan: leku historiko batean argazkia atera eta gune honetara igotzea, alegia. Ondoren argazki gustukoena bozkatzeko aukera izango dute webgunearen erabiltzaileek, baita argazki horiek sare-sozialetan partekatzekoa ere.

Horretaz gain, webguneak Lur eta Amets proiektuko euskarriak erosteko aukera ematen du; ezagutza-liburua, ipuinak eta mahai-jokoa.

## Mahaiaren bueltan jolasean

Galdera-erantzunen jolasa da mahai-jokoa, *Trivial* ezagunaren estilokoa, eta 12 urtetik aurrerako gaztetxoentzat eta helduentzat pentsatua dago. 1.500 galdera dakartza mahai-jokoak, eta horiek historiako bost arotan banatuta daude: Historiaurrea, Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea. Galdera gehienak erantzuteko hiru aukera daude, eta horien artean erantzun zuzena aukeratu beharko du jokariak, dadoa berriz bota eta jolasean jarraitzeko.

Adibidez, Antzinaroarekin loturiko galderen artean, honakoa aurki daiteke: “*Zerk bultzatu zuen Neanderthal gizakia kobazuloetan bizitzera?* a) Paretetan margolanak egiteko nahiak b) Piztia arriskutsuek c) Eguraldi hotzak”; edo, Aro Modernoarekin loturiko beste honetan irakur daiteke: “*Konkista ondoren Nafarroako erregeen mendeko erresumako lurak gutxitu egin ziren. Zer eremu hartzen zuten?* a) Lapurdi b) Nafarroa Behera c) Zuberoa”.

Jolasean ikasiz, heziketa eta ludikotasuna lotu ditu Lur eta Amets egitasmoak, hain zuzen eguneroko jardunean Katxiporretak, Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak egiten duten lanaren erakusgarri. Euskal Herriko historian bidaiatzeko aitzakiarik ez da falta oraingoan, beraz.



“Haur batentzat bizitzea jolastea da, dituen beldurrekin eta munduarekin jolas egitea; horrek bere burua nahiz ingurua ulertzeko balio dio”

# ELKARRIZKETA:

# KATTY

# HOMAR

---

## PEDAGOGOA ETA PSIKOMOTRIZISTA

Magaleko jolasen inguruko hitzaldia eman zuen Homarrek Luzarok udazkenero antolatzen dituen jardunaldietan. Haren ustez, magaleko jolasek haurrari berraseguratzeko prozesua egiten laguntzen diote, hau da, bizitzako ezintasunen aurrean ziurtasuna bilatzen.

**“Jolasa kontu serioa da”, hala dio eman berri duzun hitzaldiaren izenburuak eta baita Balear Uharteetako hainbat haur-eskoletan oinarrituz egin duzun ikerketak ere.**

Haur batentzat jatea, edatea edota lo egitea bezain inportantea da jolastea, eta hori hala dela ulertarazi behar diogu gizarteari. Haurrak jolasaren bidez ikasten du. Jolas egiteaz gainera, jolasarekin disfrutatu egin behar du haurrak. Guretzat haur-eskolako jarduna jolasean oinarritzen da eta jolasik egiten ez duen umeak asko kezkatzen gaitu.

Sophie Marinopoulosek dioen bezala, haur batentzat bizitzea jolastea da, dituen beldurrekin jolastea eta munduarekin jolas egitea. Horrek

bere burua nahiz ingurua ulertzeko balio dio, eta etorkizuna itxaropenarekin proiektatzeko, baita bere geroa irudikatze eta ikasteko ere.

**Ez zaio behar besteko baliorik ematen jolasari?**

Nire ustez ez. Jolasa kontu serioa dela ikusarazi behar dugula diot, hezitzaile asko ez delako behar beste baloratuta sentitzen. Badirudi haurrak jolasera bakarrik doazela haur-eskolara, hori gutxi balitz bezala, eta hezitzaileek ez dutela ezer egiten. Apur bat ikertuz gero, ordea, konturatzen gara haurtzaroak eta jolasak pertsonaren garapenerako duen garrantziaz. Horrengatik iruditzen zait haurtzaroaren premiei erantzuteko ez direla soilik

hezkuntza arloko politikak behar, baizik eta politika orokorrak behar direla gizarteko arlo guztiei eragingo dietenak. Haurtzaroan inbertitzea presazko auzia da. Are gehiago kontuan izanik gaur egungo umeen premiak aldatu egin direla.

### **Zein zentzutan aldatu dira gaurko haurren premiak?**

Gizartea bera eta gizarte horretako pertsonen beharrak aldatu diren heinean aldatu dira umeenak ere. Adibidez, aurreko batean ume bati liburu bat eman genion eta pantaila bat izango balitz bezala hasi zen harekin jolasean. Oraingo haurrak mundu erabat digitalean jaio dira, asko libururik gabeko inguruetan. Hori ez da txarragoa edo hobea, baina bai diferentea. Izan ere, lehen haurrek gauzak eskuetan hartzen zituzten eta

kolpeak emanaz probatzen edo esperimentatzen zuten haiekin. Orain haurrei ez zaie bururatzen mugikorrak, tabletak edo bestelako makinatxoak hartu eta kolpeak ematea, inguruak ez baitie uzten.

Baina, era berean, konturatzen gara haurrak adin horretan esperimentatzeko eta ikertzeko lehen adinako beharra duela, eta dena hain digitala izatean, kezka sortzen zaigu haurrari esperimentaziorako espaziorik uzten ote diogun. Gauza askotan aurrera egin dugu, baina beste batzuetan... Irudipena dut gauza guztiak sinplifikatuta ematen dizkiegula umei, eta horrek ez die inolako mesederik egiten.

### **Esperimentazioa eta ikerketa jolasarekin lotzen duzue?**

Umeak haur-eskolan egiten duen

guztia lotzen dugu jolasarekin. Haurraren jolasa helduak umeari ematen dion ezinbesteko lehen sostengu horretan hasten da. Jolasaren oinarria helduaren eta haurraren arteko lehen harreman hori da. [Donald] Winnicott-ek zioen bezala, haurra bera bakarrik ezin da existitu. Izan ere, haurra heldugabe jaiotzen da eta, beraz, sorreratik haurrak babesa emango dion euskarri bat behar du. Hasieran, premia horiek elikadura, higiena, loa... bezalako behar fisikoekin bermatzen dira, baina horrekin batera haurrak afektua behar du. Umea ezin da hazi bere inguruneak behar fisiko horiek afektuarekin uztartzen ez baditu. Helduaren eta haurraren arteko hartu-eman horretan jartzen dira esperimentazioaren eta ikerketaren zimenduak, eta horrekin batera, baita jolasarenak ere.



Barbara Nicolau, Catalina Roca eta Mari Jose Elias, Balear Uharteetako praktika psikomotrizaren elkarteko kideak eta 0-3ko hezitzaileak,

Katty Homar elkartearen koordinatzailearekin batera.

### **Garapenean aurrera egin ahala, haurraren jolasa ere eboluzionatuz joaten da?**

Bere kabuz sostengatzen doan heinean, bere kasa jolasean hasten da haurra. Lehenik bere gorputzarekin jolasten du —esan gabe doa haurra helduaren besoetan ez badago, hobe-kien lurtean dagoela, jolasean—. Pixkanaka, eskuak, oinak, ahoa... bere gorputzaren parte direla jabetzen da, eta gauzak ahora eramaten hasten da, edota ahoaren mugimenduekin jolasten, haurrak lehenik ahoarekin jolasten baitu. Horren ondotik, erritmoarekin eta errepikapenarekin zerikusia duten jolasak hasten dira agertzen, eta hor helduaren figura sartzen da jokoan.

### **Erritmoarekin eta errepikapenarekin lotzen dira magaleko jolasak? Balear Uharteetan egin duzuen ikerketaren funtsa horixe izan da.**

Bai, halaxe da. Magaleko jolasetan poesia, musika eta gorputzaren mugimendua uztartzen dira. Helduaren eta haurraren arteko afektuzko harremana sartzen da jokoan. Ohiko magaleko jolasetan haurrari harreman-egitura bat proposatzen zaio. Helduaren altzoan dagoen bitartean, umeari abestia kantatzen zaio eta horrekin batera zenbait mugimendu eginarazten zaizkio, behin eta berriz. Errepikatzearen poderioz, haurrak mugimenduak testuari eta melodiari lotzen ikasten du.

Horrek guztiak haurrari beldurrak gainditzen laguntzen dio. Izan ere, haurtzarora ez da beti gozoa, eta sarri haurrek larritasuna sentitzen dute, euren burua etengabe aldatzen ari den ingurune batera egokitu behar dutelako eta ezagutzen duten hori baztertu behar dutelako ezezaguna den horretarantz joateko. Testuinguru horretan, magaleko jolasek, haurrari berraseguratzeko prozesua egiten laguntzen diote, hau da, jolasaren bidez, bizitzako ezintasunen aurrean ziurtasuna bilatzen.

[Bernard] Aucouturierrek zioen moduan, berraseguratzeko sakona ahalbidetzen duten jolasek larritasunaren aurrean ziurtasuna sentitzen laguntzen diote haurrari eta jolas horiek unibertsalak dira. Haurrak 6-8

hilabete dituenetik hasi eta 2-3 urte dituenara arte egiten dira. Beldur horiek, gehienez, erreferentziatzko heldua galtzarekin dute zerikusia. Baina heldua jolasean inplikatzeko bada, haurrari berraseguratzeko prozesua egoki bizitzen du.

### **Zein motatako magaleko jolasez ari zara?**

Kultura guztietan ditugu magaleko jolasak. Adibidez, leku batean zein bestean egiten den jolasetariko bat da heldua eta haurra —edota haien aurpegiak— elkarrengandik urrundu eta atzera ere gerturatzea. Helduak haurra bere magalean hartzen du begietara begira, bere eskuarekin haren burua eta bizkarra sostengatuz. Atzera eta aurrera, abestiaren erritmoan bien gorputzak kulunkatuz hasten da jolasa. Pixkanaka, haurraren konfiantza eta segurtasuna handitu egiten dira, eta, era berean, abiadura bizkortzen du eta helduarekiko distantzia zabaltzen. Hala, sostengurako gero eta behar txikiagoa du: hasieran bizkarretik, gero besoetatik, eta azkenik eskuetatik helduta edo heldu ere egin gabe. Amaieran, helduak kilimak egiten dizkio haurrari edota haurrak salto egin eta korrika ihes egiten du helduaren magaletik. Jolas hau harrapatzeketa jolasa bilakatuko da denborarekin.

Haurrak helduarengandik bereizteko baimena duela sinbolizatzen du jolas horrek. Umeak alde egiten du, baina aldi berean, helduarekin geratu nahi duela ikusten dugu, eta horregatik itzuli egiten da. Bereizketa hori egoki gerta dadin, helduak haurrari lagun egin behar dio, eutsi egin behar dio eta ekiteko baimena eman behar dio. Eta, aldi berean, emozioak eta sentipenak bere kabuz bizitzea ahalbidetu behar dio. Berraseguratzeko prozesu oso bat egiten da jolas honen bidez.

### **Zein bilakaera izaten dute magaleko jolas horiek?**

Apur bat geroago, haurra bere gorputz-atalez jabetzen hasten duenean eta ispiluan begiratzen, eskuen, oinen, gorputzaren... inguruko magaleko jolasak agertzen dira. Abesti horiek zentzu handiagoa izan ohi dute haurrentzat. Adibidez, abesti-

“Haur batentzat jatea, edatea edota lo egitea bezain inportantea da jolastea, eta hori hala dela ulertarazi behar diogu gizarteari”

“Helduaren eta haurraren arteko hartu-emanen jartzen dira esperimentazioaren eta ikerketaren zimenduak, eta horrekin batera, baita jolasarenak ere”

“Irudipena dut gauza guztiak simplifikatuta ematen dizkiegula umeei, eta horrek ez die inolako mesederik egiten.”



ren batean esaten da haurrak gorputz atal bat galduko duela eta umeari zirrara eragiten dio horrek, baina helduaren altzoan bada hori ez dela inoiz gertatuko, babestuta sentitzen delako. Aro honetan abestiek zentzua izateaz gainera, komunikazioaren eta hizkuntzaren garapenean laguntzea dute xede. Gainera, kultura transmitzeko bitarteko dira. Baina, magaleko jolasak inondik inora ere ez dira buruz ikasi beharreko partitura eta hitzak, baizik eta jolas bakoitza haurraren eta helduaren elkarrekintzaren bitartez eraikitzen den zerbait da. Biren arteko jolasa denez, bi aldeak inplikatzeko eskatzen dute magaleko jolasek.

**Magaleko jolasek haurra kulturara txertatzen dutela aipatu duzu. Gaur egungo haur-eskoletan, baina, kultura askotako haurrak daude.**

Bai hala da. Eta zinez uste dut gurasoei euren herrialdeetako magaleko jolasak erakusteko eskatu behar diegula. Gero, horiek ere umekin haur-eskoletan egiteko. Edonola ere, hainbat magaleko jolas erabat

unibertsalak dira eta oso antzekoak batean eta bestean.

**Gorputzak protagonismo handia hartzen du jolas horietan.**

Magaleko jolasak gorputzarekin jolasten dira. Haurraren gorputza heldu bat baino gehiagoren (gurasoak, hezitzailea, aiton-amonak...) gorputzarekin dago kontaktuan, eta magaleko jolasa egiten duten figura horiekin guztiekin elkarriketa tonikoa sortzen da. [Julian de] Ajuriaguerrak elkarriketa tonikoa berraseguratzeko prozesu gisa definitzen zuen, eta batez ere, bi gorputzen elkarrekiko egoitze gisa. Magaleko jolasek helduaren eta haurraren arteko elkarrekintza sustatzen dute, eta elkarriketa hori batez ere gorputzezkoa da. Eta horrek guztiak haurrari plazera eragiten dio.

**Zer-nolako garrantzia du haurrak sentitzen duen plazer horrek?**

Ez naiz soilik haurraren plazeraz ari, helduaren eta haurraren artean partekatzen den plazeraz baizik. Haurrari plazer hori bizitzeak bestearengandik desberdin sentitzen laguntzen dio,

norbera izaten.

Baina jolasean parte hartzen ari diren biek plazera sentitzen ez badute, hobe da jolas hori ez egitea. Hezitzaileak haur batekin magaleko jolasa egiten badu ordutegian jarria dagoelako eta hori tokatzen zaiolako, ez du merezi. Hobe da denbora hori haurrak berak bakarrik nola jolasten duen behatzen igarotzea.

**Gorputzaren protagonismoaz eta plazer partekatuaz gain, zein beste ezaugarri dituzte magaleko jolasek?**

Horietaz gain, magaleko jolasek melodia bat izaten dute. Oso sinplea izan ohi da, sarri bi notarekin soilik osatua. Hala, haurrek hasieratik zuzenean parte hartu dezakete jolasean. Melodiak memorizazioa eta ikaskuntza errazten ditu, eta erritmoak nahiz errepikapenak haurrari berrasegurtzen laguntzen diote.

Magaleko jolasetarako abestiek testu bat ere izan ohi dute. Hasiera batean, letrek ez dute garrantzi handirik. Sarri, esanahirik ere ez dute izaten. Garrantzitsuena da abesten duenaren eta entzuten duenaren artean sortzen den egiturazko erlazioa. Ikusmenaren zentzumena baino lehen, haurrek entzumenaren zentzua garatzen dute. Era berean, hitzen intonazioa ere lehenago ulertzen dute esanahia baino. Eta hori oso kontuan izan behar dugu jolasean ari garenean.

**Zein da jolas mota horien atzean dagoen balioa?**

Helduengandik banatzen laguntzen diete magaleko-jolas horiek. Haurrak alde egiten du helduaren altzotik, baina, era berean, helduak atzetik jarrai diezaion nahi du. Beraz, umea helduarengandik bereizten da, baina aldi berean helduarekin egon nahi du.

Adibidez, kukukako jolasean hasierako haurra kontziente da helduarengandik bereizten ari dela. Baina, aldi berean, atxikimenduzko heldu horiek galtzeak beldurra ematen dio, estuasuna eragiten. Larritasun hori sortzen da haurrak ez dakienean zer gertatzen zaion. Eta nola gainditzen du beldur hori? Bide bakarra bere erreferentziazko heldua irudikatzen zaiola da. Haurrak bere aurpegia

eskuekin estaltzen duenean, berak ezer ikusten ez badu, uste du heldua ez dagoela hor. Horrexegatik, batzuetan haurrak tranpak egiten ditu eta ez ditu begiak ixten. Baina hori oso garrantzitsua da. Izan ere, begiak ixten baditu heldua bistatik galtzen du. Eta heldu hori gogoratzeko nahikoa irudi ez baditu barneratuta, heldu hori berarentzat jada ez dago hor. Eta heldua desagertu bada, zer gertatzen zaio berari? Bera ere desagertu da? Horrexegatik, heldua ikusi behar du, ezinbestean, nahiz eta zatitxoka izan, gero heldu hori berreraikitzeke. Gerora, jolas horrek eboluzionatu egiten du eta haurra tela gardenak edo erdi-gardenak erabiltzen hasten da ezkutatzeko, baina segituan kentzen ditu telak eta helduaren begirada bilatzen du. Eta denborarekin jolas hori ezkutaketako jolasa bilakatzen da. Ezkutatzearen eta aurkitzearen plazera sartzen da hor jokoan.

#### **Helduak zein rol jokatzen du testuinguru horretan?**

Helduaren egitekoa da haurraren parte-hartzea bultzatzea, helduak haurrari “eginarazten” dizkion ekintzak, elkarrekintza bihur daitezen. Helduak eta haurrak batera parte hartzen dute magaleko jolasetan, erritmoaren eta armoniaren bitartez. Haurraren eta helduaren artean eraikitzen diren harreman horietan heldua zein haurra jolasteko prest egon behar dira, besteari entzun behar diote, jolasean txandakatzen eta elkarrekin aritzen jakin behar dute, eta hori guztia plazerarengatik. Gainera, helduari alaitasunez jardutea eskatzen zaio, eta beste ezeren gaineratik, pazientzia izatea, bereziki haurrak jolasa behin eta berriz errepikatzeko eskatzen duenean.

Baina eskakizunak ez zaizkio helduari bakarrik egiten, baita haurrari ere. Haurrari arreta jartzeko, erritmoa egokitzeke, eta haur-eskoletan, ume asko daudenez, bere txanda itzaroteko eskatzen zaio. Hala, helduaren eta haurraren artean benetako elkarriketa sortzen da, eta elkarriketa horixe izango da elkarren arteko hartu-emanen errespaturako oinarria.

Ikusten dugun moduan, gorputza

da magaleko jolas hauen oinarri. Sarri, ordea, txikitatik haurrei ekintza mentalagoak eginarazten saiatzen gara. Baina 0-3 adin tartean haurrek gorputzarekin jolastu behar dute, horixe izango baita helduarengandik banatzea eta autonomia lortzea ahalbidetuko diena.

#### **Hain zuzen ere, haur-eskolari eskatzen zaion gauzetako bat haurraren autonomia sustatzea da.**

Bai, hala da. Eta horrexegatik haur-eskolan, sarri, haurrei gauzak euren kaxa eginarazten dizkiegu, hori delakoan autonomia. Baina Vicenç Arnaizek esan ohi duen moduan, gauza bat da haurrak helduaren ondotik alde egitea, eta beste bat, haurra bakarrik uztea. Nahi gabeko autonomiak izen bat du: bakardatea. Haurrak nahi duelako eskuratuz doan autonomia, berriz, konkista bat da, lorpen bat, garaipen bat.

#### **Hezitzaileak, edozein kasutan, bere rola du.**

Helduak eta bereziki hezitzaileez ari garenean, autoritate egituratzaileaz hitz egiten dugu guk. Horrek esan nahi du “ez” esaten jakitea. Noiz? Haurrak min har dezakeenean edota beste norbaiti mina eman diezaiokenean. Batzuetan “ez” hitzak, “hemen ez” esan nahi du, baina akaso beste leku batean bai; edo “orain ez, baina beharbada gero bai”. Elkarbizitza batean pertsona bakoitzak bere tokia du eta haurrak ere taldean bizi behar badu ezin du sudur puntan jartzen zaion guztia egin, aldamenekoa errespertatu behar duelako.

#### **Jolasaren bidez taldeko partaide izatearen zentzua ere lantzen duzue, hortaz.**

Azken batean, haur bat ispiluan bere sudurra ukizetik beste haur baten sudurra ukitzera igarotzen denean, umeen arteko harremana hasten da sortzen. Beraz, gure ustez gakoa da haurrak indibiduo gisa hartzea, baina ez era isolatuan, baizik eta talde bateko partaide direla kontuan izanik. Horrek, funtsean, gizartean ondo sentitzearekin du zerikusia, etxean, eskolan, lagun-taldean, herrian... toki bat edukitzearekin.

“Magaleko jolasak inondik inora ere ez dira buruz ikasi beharreko partitura eta hitzak, baizik eta jolas bakoitza haurraren eta helduaren elkarrekintzaren bitartez eraikitzen den zerbait da”

“Nahi gabeko autonomiak izen bat du: bakardatea. Haurrak nahi duelako eskuratuz doan autonomia, berriz, konkista bat da, lorpen bat, garaipen bat”

“Gakoa da haurrak indibiduo gisa hartzea, baina ez era isolatuan, baizik eta talde bateko partaide direla kontuan izanik. Horrek, funtsean, gizartean ondo sentitzearekin du zerikusia”

# ESPERIENTZIAK 1

ZUBILETAKO ESKOLA

---

## Gorreria duten ikasleei EAEn emandako erantzun inklusiboa

Haur baten eskolatzea ez da edonolako erabakia, are gutxiago, haur horrek desgaitasunen bat duenean. Euskal eskolaren erronketako bat hezkuntza-bereizkeria eta -bazterketa oro gaindituz ikasleen ezaugarri eta gaitasunetara egokitzea da, pertsona guztientzat kalitatezko hezkuntza bermatzeko. Helburu hori kontuan hartuta, gorreria duten ikasleek jaso izan duten hezkuntzari erreparatuko diogu, bai historian zehar eta bai gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan jaso dutenari. Horretarako, Getxoko eskola bat hartuko dugu adibidetzat.

**G**orreria edo entzumen-zailtasunak dituzten ikasleak gaur egun eskola inklusiboaren esparruan beste ikasleekin batera eskolatzen badira ere, nahiko berria da egoera. Izan ere, historian zehar haur horiekin hartu izan diren jarrera askotarikoen ondorioz, eskolatzeko hainbat aukera izan dituzte.

**Naia Rique  
Aguinaga eta  
Zuriñe Gaintza  
Jauregi**

**EHUko ikasle ohia  
eta EHUko  
irakaslea**

Erdi Aroan, desgaitasunen bat zuten ikasle gisa ikusten zirenak ezin zirela hezi argudiatzen zen, eta ez zuten eskolatzeko eskubiderik. Aro Modernoan ere eutsi egin zitzaion ideia horri. Baina, XVI. mendean, ukatu egin zen argudio hura, Fray Pedro Ponce de Leonek gorreria zuten gazteen talde bat hezi baitzuen. Horren ondoren, XVII. mendean, gorreria zuten pertsonen irakaskuntzarako ekintza eraginkorrenetarikoa bat plazaratu zen, Boneten eskutik: hizketan irakasteko metodoa, hain zuten.

Irakaskuntzan horren beharrezkoa zen komunikazio-baliabide hura garatu ondoren, XVIII. mendean sortu zen gorreria zuten ikasleentzako lehen eskola publikoa, Frantzia; eta, mendea bukatu orduko, Ingalaterran, Alemanian, Holandan eta Eskozian ere sortu ziren eskolak gorreria zuten ikasleentzat, aho eta eskuen metodoan oinarrituta. XIX. mendean, ume ororen hezkuntza posible eta baliagarria zela frogatu zuen Jean Itardek. Hala ere, oraindik 70eko hamarkadan, gorreria zuten ikasleak desgaitasun horixe zuten ikasleekin batera eskola berezietan eskolatzen ziren, eta, desgaitasunik ez zuten ikasleak, berriz, eskola arruntetan.

Beraz, gure errealitate hurbilean kokatu behar dugu gorreria duten ikasleek beste ikasleekin batera gela berean ikastea, lehen esandakoaren ildotik.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 1993ko Euskal Eskola Publikoari





Eskolako ekitaldietako batean, zeinu-hizkuntzan ari da hezitzaileetako bat.

buruzko araudiak gizartean zegoen aniztasunari eskoletan aurre egingo zion irakaskuntza bultzatu zuen, normalizazio- eta integrazio-printzipioetan oinarrituta. Gerora, ikasle guztien premiei erantzungo zien hezkuntza-eredu baten ikerketa oinarri hartuta, hezkuntza inklusiboari bide eman zitzaion, 2007an. Hezkuntza berri horrek eskola berean ikasle guztiek elkarrekin ikasi ahal izateko erronka izango du aurrez aurre, eta ikasle bakoitzaren gaitasun eta erritmoetara egokitu beharko du.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak aipatzerakoan, kontuan hartuko ditu ikuspegi inklusiboak, bai ikaslearen ezaugarriak, gaitasunak eta beharrak, eta bai ingurunearen eskaintza, baliabideak eta aukerak. Hori kontuan izanda, entzumen-desgaitasuna edo gorreria zuten ikasleei ikasteko aukera errealak emateko eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeko eman beharreko erantzuna arautu zuen Hezkuntza Sailak 2000. urtean, eta, harrezkero, eskolatzeko bi modalitate ditugu. Alde batetik, banakako inklusio-eredua duen edozein eskola arrunt. Eredu horretan, gorreria duen ikasle bakarria egongo da, eta gorreria duten beste ikasle batzuekin egin

dezake topo, ala ez. Eredu horretan, ikasgela arrunteko partaide da ikaslea, eta ikaskuntzako eta irakaskuntzako prozesu osoa ahozko hizkuntzan egingo du. Eskolako edota eskualdeko laguntza materialak eta pertsonalak izango ditu ikasleak.

Bestetik, taldekatze-proiektua duen eskola arrunta dugu. Eredu horretan, gorreria edo entzumen-zailtasunak dituen ikasle kopuru bat arituko da. Eskola horiek, funtsean, bi hizkuntza ikasteko aukera eskainiko diete gorreria edo entzumen-zailtasunak dituzten ikasleei, ahozko estrategietan oinarrituta dauden bi eredu desberdinen arabera; *eredu elebidu-nean*, ahozko hizkuntzan eta, aldi berean, zeinu-hizkuntzan garatuko da curriculuma; eta eredu elebakarrean, curriculuma ahozko hizkuntzan soilik garatuko da.

Aukera edozein dela ere, ikaslea gela arruntean dago, eta gainerako ikasleen ikasmateriala erabiliko du. Eskolako edota eskualdeko laguntza pertsonala eta materiala izateaz gain, eskolak laguntza bereziagoak ere edukiko ditu, hala nola logopeda finkoa eta, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta gelako tutorearekin batera, zeinu-hizkuntza dakien pedagogia

terapeutikoko (PT) irakaslea.

### Zer dela eta taldekatze-proiektuak ikastetxe arruntetan?

Literaturan, hainbat ikuspegi ditugu, taldekatze-proiektuen alde egiten dutenak. Hasteko, ikuspegi elebidun batetik, entzumen-desgaitasun edo gorreria duen ikaslea gorren komunitatean zein entzuten dutenen komunitatean arituko da, eta, zentzu horretan, bietan ongi aritzeko gaitasuna bermatu beharko dio hezkuntza-sistemak. Taldekatze-proiektuak hizkuntza-gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna eta gaitasun kognitiboa garatzen lagunduko die gorreria duten ikasleei, zeinu-hizkuntzaren bitartez, eta, aldi berean, ikasleak eskola-curriculuma eskuratzeko tresna izango du, entzuten duten gainerako gelakideen antzera. Hau da, zeinu-hizkuntzaren bidez, entzumen-desgaitasuna duten haurrek gorren munduaren identitatea bereganatuko dute, eta, ahozko hizkuntzaren bidez, entzuteko arazorik ez duten ikasleekin komunikatuko dira.

Ikuspegi psikolinguistikotik, argudiatu ohi da zeinu-hizkuntzak entzumen-desgaitasunak dituzten pertsonen inguruko hizkuntza

## ESPERIENTZIAK: ZUBILETAKO ESKOLA

ikasten lagundu diezaiekeela. Hau da, zeinu bidezko eta ahozko hizkuntzen ezagutzak entzuleen arteko komunikazioa eta elkarrekintza erraztuko die. Gainera, ikuspegi psikologikotik, gorreria duen ikasle bat baino gehiago egoteak onurak ekarriko ditu ikasle horien nortasunaren garapenean eta komunitatearen identitatea eraikitze bidean, horiek ahalbidetzen baititu. Dena den, bi hizkuntza horien zeregina edo erabilera ikaslearen arabera izango da: haur batzuegan, zeinu-hizkuntza nagusituko da, eta, beste ikasle batzuegan, berriz, ahozko hizkuntza. Baliteke, gainera, beste batzuegan bi hizkuntzen arteko oreka gertatzea. Gainera, eta inklusioa bultzatzeko, ikasgela berean dauden gainerako ikasleek zeinu-hizkuntza ikas dezaten lagunduko du egoera horrek, txikitatik ikusten duten hizkuntza baita.

Uneotan, taldekatze-proiektua duten sei eskola daude EAEn, Haur eta Lehen Hezkuntzan: Bizkaian lau: Durangoko Landako eskola, Basurtoko eskola, Getxoko Zubileta eskola eta Bermeoko San Frantzisko eskola; Gipuzkoan bat: Donostiako Amara Berri eskola, eta Araban bat: Samaniego eskola.

### Taldekatze-proiektuak eskola batenzat zer adierazten du?

Hori ikusteko asmoz, Bizkaiko Haur eta Lehen Hezkuntzako D ereduko Zubileta eskolara jo genuen. Ikastetxe hori Getxon dago, eta taldekatze-proiektu bat garatzen dute gorreria edo entzumen-zailtasunak dituzten ikasleentzat. Gorreria duten ikasle guztien garapen osoa lortzea dute helburu nagusi, betiere, haien ezauzgarri bereziei eutsiz.

Eskolan sartu bezain laster, deigarria egin zitzaigun ateetan eta paretetan gainezka zegoen hizkuntza-paisaia; kartelak, irudiak, edota argazkiak zeinu-hizkuntzan agertzea ere harrigarri egin zitzaigun, bai eta gorren komunitatearen inguruko informazioa nahiz erabilera arrunteko zeinuak edonon aurkitzea ere.

Duela 15 ikasturte sartu zen eskola taldekatze-proiektuan, eta, egun, gorreria edo entzumen-zailtasunak dituzten sei ikasle hartzen dute par-

te. Desgaitasun motaren arabera, desberdintasun ugari daude beren artean, ikasle horiek talde berean sartzen badira ere; entzumen mailatik ahozko hizkuntzaren edota zeinu-hizkuntzaren mailara artean, oso handia izan daiteke aldea, kontuan hartuta beti entzumen-protesien erabilera eraginkorra izan daitekeela batzuentzat eta besteentzat, berriz, ez. Bost ikasleek eredu elebiduna (zeinu-hizkuntza eta ahozkoa) hautatu dute, eta ikasle batek, eredu elebakarra (ahozko hizkuntza soilik). Ikasle guztiak gela arruntean daude euren ikaskideekin batera, eta erabiltzen duten materiala besteek erabiltzen duten bera da. Aukeratutako ereduaren arabera, ikasleek zenbait giza baliabide berezi edukiko dituzte egunero: logopedak eta zeinu-hizkuntza dakiten PT irakasleak, besteak beste.

Eskolan, zeinu-hizkuntzan oinarritzko ezagutza duten bi logopeda daude, lanaldi osoan. Taldekatze-proiektua duten eskoletan, ezinbestekotzat jotzen da logopedaren figura, logopedak erraztuko baitie gorreria duten ikasleei hizkuntza batetik besterako ezagutza-transferentzia; hau da, logopeda izango da ahozko hizkuntzatik zeinu-hizkuntzara eta

alderantzizko bidean garatu beharreko estrategien eragile nagusia. Astean zehar, 45 minutuko bost saio dituzte (apartekoak eta banakakoak) gorreria edo entzumen-desgaitasuna duten ikasleekin, hizkuntza, hizkera, ahoskera eta entzumena lantzeko. Ongi egokitutako gela batean izaten dira saioak, eta erabiltzen diren materialak askotarikoak dira, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak jarritako SUBAG tresna edota software propioa eta bereziak. Logopedaren lanean, ezinbestekoak dira ikaslearen tutoreaekin nahiz zeinu-hizkuntza dakien PT irakasleekin astero egiten dituen koordinazio-batzarrak. Esan bezala, eredu elebakarreko ikaslearen heziketa ahozko hizkuntzan oinarrituko da bereziki; hori dela eta, logopeda izango da ahozko komunikazioa landuko duen profesional bakarra.

Eredu elebiduneko ikasleen kasuan, ordea, ahozko komunikazioa landu arren (logopedaren laguntzaz), beraien heziketa zeinu-hizkuntzaren bidez garatuko da, eta, horretarako, zeinu-hizkuntza dakiten PT irakasleak izango dituzte. Esan bezala, eskolan zeinu-hizkuntza dakiten bi PT daude, eta bakoitzak ikasle jakin batzuk ditu. Zeinu-hizkuntza dakien





PT irakasleak, tutorearekin batera, ikasgela arruntean lan egingo du, eta ikasgelako tutoreak azaldukoakoa zeinu-hizkuntzara egokituko dio gorreria duen ikasleari. Gainera, beharrezko ikusiz gero eta azalpenak argitzeko, testuak edota tutorearen azalpenak bisualagoak diren beste formatu batera (Power Point edo eskemak) egokituko dizkio. Izan ere, entzumen-desgaitasuna duten ikasleek zailtasunak dituzte normalean beraien kabuz testu idatzira iristeko. Horrexegatik, zeinu-hizkuntza dakiten PT irakasleak behar-beharrezko profesionalak dira ikasle horien ikaskuntza-prozesuan. Entzuteko zailtasunak dituzten ikasle gehienek hizkuntzak ulertzeko zailtasunak dituzte, eta, beraz, gela barruan izango dute laguntza hizkuntza-orduetan. Dena den, ulermen-zailtasun horiek saihesteko, ikasleen beharretara egokituko da curriculum guztia. FM aparatua ere erabiliko dira, beraien geletan ahozko ulermena errazteko.

### 15 urte bidea egiten

Proiektuan sartu zirenetik hamabost ikasurte igaro badira ere eta urte horietan guztietan eginiko lanaren

ondorioz hainbat alorretan urrats sendo eta garrantzitsuak egin badituzte ere, badakite oraindik asko dutela egiteko. Adibidez, badakite ezinbestekoa dela entzumen-desgaitasuna duten ikasleei oztropoei aurre egiteko zenbait komunikazio-sistema eskaintzea, aldaketak eta hobekuntzak urtero gauzatu badituzte ere. Aurrekontu falta dela eta, oraindik komunikazio-arazoak maiz agertzen dira: txirrinaren soinua, adibidez, edota bozgorailuetatik ematen diren abisuak. Taldekatze-proiektuan parte hartzen duten profesionalen hitzetan, falta handia sumatzen da gorreria duten ikasleekin lan egiteko material espezifikoetan. Gaur egun hiru hilabetean behin gorreria duten ikasleak dituzten beste eskola batzuekin biltzen badira ere eta nahiz eta elkarrekin proposamen, zailtasun eta materialak trukatu, baliabide gehienak beraiek sortu behar dituzte, eta horrek lan handia eta denbora asko eskatzen du. Gorreria duten ikasleek behar handia dute, zeinu-hizkuntzako tutorearekin ez ezik, eskolako gainerako profesional eta ikasleekin komunikatzeko, bai gela barruan, bai kanpoan, eta, hori sustatu nahian eta

komunikazio-arazoei aurre egiteko, eskolak berak pausoak eman ditu, zeinu-hizkuntzaren erabilera bultzatzen duten dinamiken bidez.

Hala ere, eskolaren inplikazioa eta konpromisoa garrantzitsuak badira ere, ezinbestekoa da administrazioaren laguntza izatea. Administrazioak baitu eskola inklusiboaren esparrutik ikasle ororen kalitatezko heziketa ongi gauzatzeko giltza.

**Taldekatze-proiektuaren bidez, Ikuspegi elebidun batetik, entzumen-desgaitasun edo gorreria duen ikaslea gorren komunitatean zein entzuten dutenen komunitatean ariko da, eta, zentzu horretan, bietan ongi aritzeko gaitasuna bermatu beharko dio hezkuntza-sistemak**

# ESPERIENTZIAK 2

BIZIBUSA

## Eskolarako bidea bizikletaz

Bide-heziketaren arloan aurrerapauso bat emateko asmoz, garraibideak arduraz erabiltzeko ikasgaiari heldu zioten joan den udaberrian Hernaniko zenbait herritarrek; hala, BiziBusa egitasmoa jarri dute abian, eta bizikletaz joaten dira eskolara herriko hainbat haur goizero.



Mari Jose Arrieta eta Axun Larburu

2015eko udaberrian jarri zuten abian Hernanin (Gipuzkoa) BiziBusa proiektua, esperientzia pilotu gisa. Herritarren talde batek sortutako BiziOn egitasmoaren barruan hasitako lehen ekimena da BiziBusa. Hitzak dioenez, ondo bizitzera hurbiltzeko proposamena da BiziOn. Osasunerako eta naturarako kaltegarriak diren praktikez hausnartzea eta, kalte horiek leundu nahian, osasuntsuak zein jasangarriak diren ohiturak sustatzea eta lantzea dute xede.

Garraioa izan da BiziOn egitasmoaren abiapuntua. “Segur aski, Hernaniko haur eta gazteek ikastetxeetara egiten duten eguneroko bidaia da gure herriko joan-etorriak jendetsuenetako bat”, argitu du proiektuaren sustatzaileetako batek, Axun Larburuk. Izan ere, lau ikastetxe dituzte herriaren

erdigunean, eta familia asko autoz joaten dira herriko auzoetatik ikastetxe horietara. Eguneroko ogi dira Hernanin, ordu jakin batzuetan, ikastetxeetako sarrera-irteeretan izaten diren auto-pilaketak. Eskoletan, arazo hori saihesteko neurriak hartzeko eskatu izan zaie gurasoei, baina bere horretan dirau kontuak. “Egunero jasaten ditugu autoen gehiegizko erabilerak dakartzan ondorioak: arau-hausteak, eskoletako sarreren blokeoa, estresa, auto-ilarak, kutsadura, odol txarra...”.

Araoari adarretatik heltzea eta urratsak egiten hastea erabaki zuten BiziOn egitasmoa osatzen duten herritarrek, eta BiziBusa proiektu pilotua jarri zuten abian, 2015eko maiatzaren 4tik ekainaren 20ra bitartean, goizero eskolara bizikletan joateko. “Bide-heziketa urteroko ikasgaia da gure herriko haurrentzat. Udaltzainen azal-

penei esker, oinezko eta txirrindulari arduratsuak izateko jarraibideak ikasten dituzte; baina zertarako, eskolara autoz joaten badira gero? BiziBusaren bidez, aurrerapauso bat eman nahi izan dugu bide-heziketan, eta teoriatik praktikara jauzi egin”, azaldu du proiektuaren beste eragileetako batek, Mari Jose Arrietak.

Hala, herria aztertu ondoren, ibilbide bat zehaztu zuten, hainbat ezaugarri oinarri hartuta: ahalik eta auzo gehienetara heltzea, oso aldapatsua ez izatea, bidegorria edukitzea, eta iraupenaren aldetik egokia izatea. BiziOn taldeak sustatuta, udalaren eta ikastetxeen lankidetzaz ekin zioten egitasmoari. 20 minutuko ibilbidea diseinatu zuten, sei geltokirekin. Florida auzotik abiatzen ziren, eta hainbat ume BiziBusean sartzen ziren sei geltoki horietan. Zortzi urtetik hamabi



BiziBusa proiektuaren sustatzaile Mari Jose Arrieta aurrean dutela, eta atzean udaltzaina, egiten dute haurrek etxetik eskolarako bidea.

urtera bitarteko haurrak batzen ziren BiziBusera; adin horretatik beherako haurrak, berriz, gurasoekin joaten ziren. Arrieta bera joaten zen BiziBusaren aurrealdean, eta atzean, aldiz, udaltzain bat: “Motxilak eramateko, kaxa moduko bat dugu, eta haurrek ez daukate bizkarrean eraman beharrik. Eguraldi txarra egiten duenerako, berriz, umeei aldagarriak dituzte eskolan. Beraz, ez dago inolako arazorik”. 30 haur elkartu ziren gehienera, eta, sustatzaileek diotenez, oso erantzun ona jaso zuten, bai eskolen, bai familien eta bai herritarren aldetik.

Aurreko ikasturteko proiektu pilotuak izan zuen arrakasta ikusita, 2015-2016 ikasturtean ere jarraipena eman diote BiziBusari. Gainera, beste ibilbide bat ere abian jarri dute ikasturte honetan, eta ia-ia herri guztia hartzeko aukera izan dute, proiektuaren xedea haur guztiek BiziBusean joateko aukera izatea baita.

Sustatzaileen esanetan, hamaika onura dakartza BiziBusa proiektuak. Hasteko, haurrek kirola egiten dute, eta ohitura osasungarriak barnatzen dituzte. Gainera, aukera dute herriko bidegorrien sarea ezagutzeko ere. Bigarrenik, ikastetxe guztietako haurrek elkarrekin egiten duten egitasmoa izanik, talde-dinamika lantzen da, baina, aldi berean, baita haur bakoitzaren autonomia ere, bakoitzak bere gain hartu behar baititu zenbait ardura

(geltokira garaiz heltzea, giltzarrapoa eramatea, bizikleta zaintzea...). Hirugarrenik, auzoetan bizi diren herritarrei laguntza ematen zaie, eta egunero autoa hartzeak eta eskolara joateak dakarkien zama arintzen zaie gurasoei. Azkenik, kutsadura gutxitzen du, eta ona da ingurumenarentzat. Horrez gain, bestelako balio batzuk ere lantzen dituzte haurrek: lagun berriak egin, aire osasuntsua arnastu, egunari alaitasunez ekin, bizikletan taldean ibiltzen ikasi, euskaraz hitz egin...

### **Eta proiektu gehiago...**

BiziBusa, ordea, ez da BiziOn egitasmoaren proiektu bakarra. Haurren ikasteko gaitasunarekin dago lotuta bigarren proiektua: HaziOn. Larburuk eta Arrietak diotenez, garapenak aldatu egin ditu denboraren eta espazioaren kontzeptuak: “Gizarte interkonektatu batean bizi gara, gizarte konplexu batean. Horren ondorioz, gauza asko ikasi behar izaten ditugu denbora gutxian. Haurrek estimulu gehiago dituzte prozesatzeko gaur egun. Horregatik, gero eta zailago egiten zaie zentratzea, arreta jartzea eta erabakiak hartzea”.

Desoreka horiek leuntzera bideratu dute HaziOn egitasmoa. Hala, kontenplazio-teknikak landuko dituzte: meditazioa eta yoga. Haurrei bizitza osorako baliagarri izango zaizkien tresnak eman nahi dizkiete, tresna ho-

riek egunero erabiliz praktika barnera dezaten.

Abiapuntu gisa, ikastetxeetako hezitzaileei aukera emango diete 2016ko udaberrian, yogako eta meditazioko teknikan trebatzeko. Trebakuntza jaso ondoren, praktikan jarriko dute ikasleekin eguneroko jardunetan, 2016-2017 ikasturtean, ariketa erraz, dinamiko eta sinpleen bidez.

Azkenik, hondakinen gaiari ere heldu nahi izan diote Bizi On egitasmoko kideek, Bizi GabONak proiektuaren bidez. Bi arlo jorratu nahi dituzte bereziki: hondakinak berriz erabiltzea, eta hondakinak murriztea. Gabonetan sortzen diren hondakinak dira egitasmoaren jomuga. “Eguberrietan, zaila izaten da kontsumoaren atzaparretan ez jaustea, eta horren ondorio zuzena da hondakinak ugaritzea”. Horregatik, Bizi GabONak proiektuaren bidez, hondakinak berriz erabiliz, apaingarriak egitea eta Hernaniko gun bat edertzea dute helburu. 2016. urtea erabiliko dute herriko merkatariei zein ikastetxeei proiektuaren berri emateko, eta 2016ko Gabonetan gauzatuko dute ekimena lehen aldiz.

Azken batean, BiziBusa, HaziOn nahiz Bizi GabONak ekimene bitartez, haurren parte-hartzea bilatu nahi dute. “Haur garenean geure egiten ditugun ohitura horiek baitira luzera egonkortuko ditugunak eta, segur aski, helduaroan iraungo dutenak”.

# ESPERIENTZIAK 3

HIRUKIDE IKASTETXEA

## Ikasleak, gatazketan bitartekari lanetan

Ikasleen arteko gatazkak konpontzeko bitartekariak dituzte Hirukide ikastetxean, duela sei urtetik hona. Ikasleak beraiek dira bitartekari horiek. Adostokian elkartzen dira gatazka izan duten lagunak, eta, bitartekarien laguntzarekin, adostutako konponbide bat ematen diote beraien artean sortutako arazoari.

**B**este hainbat eskolatan bezala, Hirukide ikastetxean ere irakasleari zegokion epaile lanak egitea, duela sei urte arte. Bi ikasleren artean gatazkaren bat sortuz gero, helduari zegokion arrazoia nork zuen ebaztea, gaiztoa nor eta zintzoa nor zen esatea. Gaur egun, oso bestelakoa da egoera. Izan ere, bitartekaritza-programa abian jarri zutenetik, horretarako prestakuntza jaso duten hainbat ikaslek bitarte-

kari lanak egiten dituzte, gatazka bat izan dutenen artean. Bitartekaritza-programa ezagutarazteko eta, bide batez, bitartekari lanetan jardun diren ikasleei aitortza egiteko, ekitaldi bat antolatu zuten urrian, Tolosako Kultur Etxean.

### Gatazka kudeatzeko erremintak

“Edozein lantoki, lagun talde edo familian bezala, eskolan ere gatazkak sortzen dira. Helburua ez da inoiz gatazkarik ez izatea, absurdoa bailitzateke hori; gure nahia da gure ikasleei tresnak eta baliabideak ematea, gatazka horiei aurre egiteko”, azaldu zuen Tolosako ekitaldian Hirukideko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendari Pello Agirrezabalak. Ikasleei eman nahi dieten baliabide horietako bat hauxe litzateke: “Elkarrekin aurrez aurre begietara begiratzuz esertzeko gaitasuna”.

Hain zuzen, horretarako jarri zuten abian bitartekaritza-programa. Horren baitan, zenbait ikasle gatazketarako bitartekari izendatu dituzte, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan

eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, eta zeregin horretarako trebatu dituzte. 15 ordu inguruko prestakuntza jaso dute, batik bat adimen emozionalarekin lotuta: besteari entzuten, errespetuz hitz egiten, sentimenduak adierazten... ikasi dute trebakuntza-saio horietan. Asteazken bizpahiru ordu eskaintzen dizkiote prestakuntzari, horietatik erdiak eskola-orduetatik kanpo.

Bitartekari horien zeregina da, besteak beste, arazoren bat ote dagoen behatzea; eta, halakorik bada, ikastetxeari jakinaraztea. Adibidez, ikasleren bat bakartuta uzten badute gainerakoek, bitartekariak ikasle horrekin hitz egingo dute, zer gertatzen den jakiteko, bai eta gainerako ikasleekin eta irakasleekin ere. Edo, ikastetxera ikasle berri bat iristen bada, bitartekari bat ondoan izango du etengabe, taldean sartzen laguntzeko. Eta, noski, bi ikasleren artean gatazka bat sortzen denean, adostutako konponbide bat lortzeko lan egiten dute bitartekariak: “Bitartekariak ez dute ezer konpontzen; norbaitek haien zerbitzua eskatzen badu, haien





Ikasleek eta gizarte-eragileek bizipenak partekatzeko aukera izan zuten.

zeregina zubi bat eraikitzea da, non komunikazioa posible izango den gatazka izan duten horien artean”. Horretarako, Adostoki deiturikoak sortu dituzte.

### Adostokiak bilgune

Ekitaldian emaniko bideo batean ikus zitekeenez, Adostokietan elkartzen dira gatazka izan duten aldeak eta bitartekari lanetan ari diren ikasleak. Gerta liteke gatazka hori biren artekoa izatea, edo bi lagun talderen artekoa. Azken kasu horretan, lagun talde bakoitzak ordezkari bat aukeratu behar du Adostokira joateko.

Han biltzen direnean, arauak azalduko dizkie bitartekariak: ezin dute eten bestearen solasa hizketan ari denean; ezin dute izengoitirik erabili edo iraindu; bestearekiko zintzo jokatu behar dute... Joko-arauak garbi daudenean, bitartekariak aldeetako bakoitzari zer gertatu den azaltzeko eskatuko dio. Horren ondoren, arazo horren aurrean nola sentitzen diren adierazteko eskatzen die, bai eta bestearen egoera bizi izan balute zer sentituko zuten agertzeko ere. Azkenik, zer konponbide bururatzeko zaion azaldu behar du alde bakoitzak. Hortik abiatuta, bide bat adostu behar dute arazoari aurre egiteko. Adostu-

tako hori idatziz jasoko dute bitartekariak, eta bi aldeek sinatuko dute.

Irakasle talde batek egiten dio jarraipena Adostokian egositakoari. Hala, bi astean behin elkartzen dira bitartekariak eta irakasleak, gatazkari eta adostutakoari jarraipena egiteko. Bilera horiek eskola-orduetatik kanpo izaten dira normalean, eta hauxe diote bilera horiez: “Azken 6 urte hauetan bestelako hainbat bilera bertan behera utzi ditugun arren, hauek sekula ere ez”. Izan ere, bitartekari lanetan ari diren ikasle horiek babestuta sentitzea da ikastetxearen helburua.

Hirukideko zuzendariaren esanetan, kostatu egin zitzaizen hasieran gazteek adostutako horri balioa ematea eta aintzat hartzea: “Ez gaituztelako balio horietan hazi, eta ohituta geundelako epaile lanak egiten”. Baina hauxe ikasi dute: “Gatazka ikasleek izan dutenez, poztu egin behar dugu, adostutakoa haien zatik baliagarria bada”. Izan ere, prozesu horren bidez ikasleek sentitzen duten ordaintza “oso inportantea” da.

Horregatik, prozesua hobetzen saiatzen dira, eta, horretarako, baliagarri zaie Adostokira joaten diren ikasleek betetzen duten balorazio-orria. Horri esker hautematen dute

zer hobetu behar duten, zer lantzen jarraitu behar duten, edota ikasleentzat zailtasun gehien zerk sortzen duen.

### Bigarren Hezkuntzan desberdin

Bitartekaritza-zerbitzua LHko 5. eta 6. mailetan ematen dute nagusiki, baina, DBHko 1. eta 2. mailetan, *ikasle laguntzaile* deiturikoak daude. Izan ere, batik bat gatazkaren ebazpena da helburua LHn, adostutako konponbidea, betiere. Eta, beraz, ahalik eta lasterren esku hartzen dute gatazka bat sortzen denean. DBHn, aldiz, bitartekarien lana behatzea da batik bat, eta arazoaren prebentzioarekin dago lotuta.

Hala, ikasle laguntzaileak eta irakasleak hamabostean behin elkartzen dira, eta behatutakoaren berri ematen dute; hau da, ikasleek arazoaren bat sumatzen badute, irakasleari jakinarazten diote. Bileran bertan erabakitzen dute zein kasutan esku hartu eta zeinetan ez, eta, egitekotan, nork egingo dituen bitartekari lanak.

Batxilergoan, aldiz, Cyberkide programa dute abian. Horren bidez, batik bat sare sozialetan gerta daitezkeen arazoak lantzea dute helburu.

Bai LHn eta bai DBHn, badira bitartekari guztiek bete beharreko arau

## ESPERIENTZIAK: HIRUKIDE IKASTETXEA

batzuk, eta diskrezioa da horietako bat. Diskrezioarekin batera, errespetua eskatzen zaio bitartekariari. Eta, noski, bitartekarietako batek harremana badu gatazkaren parte den aldeetako batekin, ezin izango du parte hartu arazo hori konpontzeko prozesuan.

### Zubiak gizartera

Hirukideko ordezkarien ustez, komunikabideetan eskolarekin eta hezkuntzarekin loturiko gaiak agertzen direnean, gatazkekin eta arazoekin lotuta izaten da nagusiki. Garrantzitsua iruditzen zaie, beraz, bizikidetzaren inguruan egiten den lana ere gizarteratzea eta hezkuntzarekin loturiko gaiak modu positiboan agertzea. Horregatik, duela 3 urtetik, bizikidetzaren inguruko foroa antolatzen dute gizarte-eragileekin; urrian Tolosako Kultur Etxean egindakoaren antzekoa da. “Gizartean dauden erakunde batzuekin partekatu nahi genuen gure lana, eta, bide batez, ikasleei ikusarazi nahi genien jende asko ari dela bizikidetzaren inguruan lanean eta gatazkak nola kudeatu aztertzen; hori guztia ez dela eskolako irakasleei bururaturiko harrikada bat, alegia”.

Urriko saioan, askotariko eragileek

egin zuten bat Hirukidekoen deialdiarekin, eta ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Baketik zentroak, Osakidetzak, Tolosako Bizikidetzako Foroak, Tolosako alkateak edota Zumarragako gazte heziketarako zentroko ordezkariak. Agirrezabalak esker ona agertu zien han bildu ziren erakundeei: “Zubiak eraiki behar ditugu; eskolak kanpora irten behar du, eta zuen laguntza paregabea da horretan”.

Ekitaldira hurbildutako erakundeek aukera izan zuten Hirukiden bitartekari lanetan ari diren ikasleekin bizi-penak partekatzeko. Elkarri galdetu zioten ea zer egiten zuten gatazka-egoera zehatz batzuen aurrean, eta iritziak trukatu zituzten.

Ekitaldiaren amaieran, erakundee-tako nahiz Hirukideko ordezkariak omenaldi bat egin zieten bitartekari lanetan jardun duten ikasleei, eta diploma bana eman zieten. Gainera, bitartekari lanetan hasiko direnei zapi gorria (bitartekariaren ikurra) eman zieten.

### Bizikidetzako, Hirukideko parte

Hiru ikastetxek bat-egitetik jaiotzen Hirukide, duela 13 urte. Bat-batean, proiektu bakar baten inguruan

elkarlanean hasi behar izan zuen hiru tokitatik zetorren jendeak; “lan egiteko hiru kultura” adierazten zituzten. Aitortu zuten, bidea ez zen erraza izan hasieran, baina argi zuten bide berri horretako helburu nagusien artean hau lortu behar zutela: “Bizikidetzako positiboa lantzea, horretan sinestea eta gure ikasleengan hazi bat ereitea”.


Gauzak horrela, adimen emozionalaren inguruko prestakuntza sakona jaso dute 13 urte horietan egin duten ibilbidean, “hori baita eskolaren oinarrietako bat”. Prestakuntza hori irakasleei zuzentzen zitzaizkien hasiera batean; izan ere, “ikasleekin zenbait gauza landu ditzakezu, baina inportanteena da zer transmititzen diegun; zaila da geuk barnetatuta ez duguna transmititzea”, Agirrezabalaren ustez.

Horren ondoren eta bitartekaritza-programa abian jarrita, ikasleek ere adimen emozionalaren inguruko prestakuntza jaso dute. Izan ere, irakasleetako batek ekitaldian azaldu zuena ekarriko dugu gogora: “Eskolak bizitzarako prestatu behar baditu, oso ikasgai garrantzitsua da hori. Denbora asko inbertitzen dugu programa honetan, baina, emaitzak ikusita, merezi duela uste dugu”.



Pello Agirrezabala, Hirukideko HHko eta LHko zuzendaria, gizarte-eragile eta ikasleei harrera egiten Tolosako ekitaldian.





# Bidaia pedagogikoa ESTONIAra

Hik Hasik antolatuta, **hezkuntza-bidaia** egingo da **martxoaren 28tik apirilaren 2ra Estoniara**.

Tallin hiriburua duen herri txiki hau (1.300.000 biztanle), estatu askoren mende egon da hainbat mendetan, Alemaniaren eta Errusiaren mende, esate baterako.

1991n lortu zuen independentzia. Harrezkero, bere herri nortasuna eta hezkuntza propioa garatzen ari da etengabe, eta, hezkuntzak berebiziko garrantzia du herriaren antolaketan eta garapenean.



Informazioa eta izena ematea: [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)

# GALDEIDAZU

## BEHARREZKOAK AL DIRA ETXEKO LANAK?

**O**ro har, etxeko lanak programazioan txertatuta daude Lehen Hezkuntzako eskola gehienetan. Irakasle gehienok agintzen ditugu etxeko lanak; batetik, horiei esker hainbat diziplina lantzen direla uste dugulako, hala nola ikasteko ohitura onak hartzea, gelan ikasitakoa finkatzea, gaitasun akademikoa hobetzea, lanarekiko ardua izaten ikastea, denbora antolatzen eta banatzen ikastea, eta abar. Eta, bestetik, beti horrela egin izan delako. Hala ere, irakasleok etxeko lanak prestatzen denbora asko pasatu arren eta nahiz eta familiek beren aldetik etxeko lan horiek egin daitezzen antzeko ahaleginak egin, ikasleen motibazioa askoz txikiagoa da Lehen Hezkuntzako azken ikasturtera iristen direnean ziklo horren hasieran zeudenean baino; eta batzuek zailtasunak dituzte jada, baita arlo akademikoan ere. Zer gertatzen da prozesu horretan, horrela bukatzeko? Zer ari gara galtzen bidean, Lehen Hezkuntzan hasi berri den ikasle batek gauzak ikasteko izugarritzko grina adierazten badu eta bukaeran, aldiz, etxeko lanak gorrotatzen baditu? Nire ustez, berebiziko garrantzia dauka geure buruari galdera horiek egiteak, bai eta erantzunak aurkitzeak ere; baina behar baino indar eta maiztasun gutxiagorekin egiten direlakoan nago. Ezbairik gabe, erantzuna ez dugu leku bakar batean aurkituko, eta, horregatik, gogotik aztertu behar genituzke atal



### DAVID CASTRILLO LH-KO IRAKASLEA ETA ADIMEN EMOZIONALEAN ETA NEUROPSIKOLOGIAN ADITUA



guztiak. Dena den, arreta etxeko lanetara bideratuko dut artikulu honetan; izan ere, etxeko lanak direla medio, ikasleen motibazioari kalte egiten ari garela uste dut, eta askotan, gainera, ez dugu lortzen espero genuen maila akademikoa ere.

#### Argudioak eta mitoak

Segidan, etxeko lanak agintzeko hainbat arrazoi aipatzen dira, eta, arrazoi horiekin batera, hezkuntzako profesionalek horiek desmitifikatzeko emandako azalpenak dituzue.

- **Ohiturak hartzeko dira:** Bigarren Hezkuntzako irakasleek baieztatu dute fase horretan hasten diren ikasleek ez dutela etxeko lanekiko ez interesik, ez eta aurretiko jarrerarik ere. Hau da, ez dute ohiturarik, Lehen Hezkuntzan etxeko lanak egiten aritu diren arren. Ikasteko ohitura hartzeko helburua ez da lortzen motibaziorik gabeko lanak errepikatzearen poderioz, baizik eta interesaren eta heldutasun pertsonalaren bidez. Fase bakoitzak berezko beharrak ditu, eta horiek ukatzeak gizabanakoaren garapena oztokatzea dakar.

- **Gaitasun akademikoa hobetzen dute:** gaitasuna duten haurrek hobeto egingo dute aurrera, ziur asko lehenago bukatuko dutelako edo gelan denbora izango dutelako; beraz, lan gutxiago izango dute etxera eramateko. Zailtasunak dituztenek, ordea, etxera eramango dituzte zailtasun horiek, eta gorpil zoro batean sartuko

ditu horrek (aintzat hartu behar da etxeko lanak, gehienetan, gelan egindakoaren errepikapen direla, edota bukatu gabekoa bukatzeko).

- **Bakarka ikasteari tarte bat eskaintzen diote:** haur askori senideren batek edo irakasle partikular batek laguntzen die etxeko lanak egiten. Diskriminaziorako elementu bilaka daiteke hori, familia guztiek ez baitute izaten horretarako denbora edota ezagutza, ez eta irakasle partikular bat ordaintzeko baliabideak ere. Horrez gain, familia askok ez daki zein den gelan lantzen den metodologia, eta gatazka kognitiboak sor ditzake horrek.

- **Denbora antolatzen eta banatzen iasteko dira:** nik uste dut Lehen Hezkuntzako azken ikasturterako eta, hortik aurrera, Bigarren Hezkuntzarako balio dakigukeela horrek. Adin txikiagoetan, ordea, haurrak ez dira daukaten denboraren jabe, eta helduok hartzen dugu zama horren ardura. Segidan aurkeztuko diren argudioek argi erakusten dute Lehen Hezkuntzan ez dagoela etxeko lanen beharrik edo, behinik behin, ez dagoela behar handiegirik.

- “Agintzen diren etxeko lanak, oro har, berdinak dira ikasle guztientzat, horien gaitasunak edo egoera pertsonalak kontuan hartu gabe. Gainera, badirudi badagoela testuliburua bukatzeko halako obsesio bat; familia askok bi ikasgela alderatzen dituzte, eta bakoitzean zenbat koaderno bete diren eta zenbat ohar hartu dituzten zenbatzen dute; lehia sortzen dute horrela beraien artean”. (David Castrillo. Lehen Hezkuntzako irakaslea eta Adimen Emozionaleko Hezkuntzan eta Neuropsikologia eta Hezkuntzan magistratua).

- “Ikasleek etxeko lanekiko adierazten duten interes faltak sor dezakeen ondorioz asaldagarriena eskolarekiko eta, orokorrean, ikastearekiko jarrera negatiboa hartzea da. Esango nuke etxeko lanak direla haurren jakin-minaren suntsitzaile handienak. Haur osoak nahi ditugu, sozialki, fisikoki eta artistikoki garatuko direnak, eta, aldi berean, erlaxatzeko eta haurrak izateko denbora izango dutenak”. (Alfie Kohn. Idazle eta mintzalaria amerikarra, haurren hezkuntzan, hazkuntzan eta giza portaerarekin

lotutako gaietan aditua)

- “Guztiok behar dugu denbora libre, eta haurrak ez dira salbuespen, haurrek ikasteko erabiltzen duten lehen modua jolasa baita”. (Rebeca Presa García. Pedagogia Terapeutikoko irakaslea).

- “Liburuko ariketa gutxiago eta esperientzia gehiago behar dira. Ikaslea gidatzea eta hark informazioa lortzeko bideetara hurbiltzen jakitea da garrantzitsuena. Hainbat gairi buruz informazioa ematen badiegu eta beraien jakin-minetatik abiatzen bagara, beren kabuz eskatuko dute informazioa, eta edozein adinetan irentsiko dute”. (Rebeca Presa García. Pedagogia Terapeutikoko irakaslea).

- “Lehenengo urteetan, jokoa da, hain zuzen ere, haurrek ikasteko garatzen duten jarrera, jakin-nahiaren estimuluaren laguntzaz [...]. Egin berri diren zenbait ikerketatan, aditzera eman dute ezagutza berrien lorpenak eta beste hainbat jarrera atsegingarrik (sexuak edo ura bilatzeak, esaterako) oinarri neuronal berak partekatzen dituztela. Hortaz, gauza berriak jakin nahi izate horrek plazera du oinarri garunean. Jakin-minaren bilaketa-prozesuan eta horren ostean hartzen diren erabakiak biologikoki atseginak direlako ideia indartzen du horrek”. (Francisco Mora. Medikuntza eta Neurozientzietako doktore, Fisiologiako katedradun eta irakasle gaur egun, Madril eta Iowako unibertsitateetan).

- “Haur guztiek behar bat sentitzen dute (ikastekoa), jolasera bultzatzen dituen eta soilik jolasaren bidez asetzen dutena, atsegina egiten baitzaie hori. Jolasa, beraz, haurren garuna ikasten duen bitartean aldatzeko prozesua da”. (Francisco Mora. Medikuntza eta Neurozientzietako doktore, Fisiologiako katedradun eta irakasle gaur egun, Madril eta Iowako unibertsitateetan).

- “Etxeko lan astunak eta ezertarako balio ez dutenak daude, zigor baten moduan uler daitezkeenak. Erakargarriagoak izan behar lukete etxeko lanek, errealitateari egokituak, eta landutakoa sakontzen eta zabaltzen lagundu behar lukete. Adibidez, gurasoei erostetak egiten laguntzea, eta elikagaien etiketatik arreta jartzea.

Haur askori senideren batek edo irakasle partikular batek laguntzen die etxeko lanak egiten. Diskriminaziorako elementu bilaka daiteke hori, familia guztiek ez baitute izaten horretarako denbora edota ezagutza, ez eta irakasle partikular bat ordaintzeko baliabidea. Horrez gain, familia askok ez daki zein den gelan lantzen den metodologia, eta gatazka kognitiboak sor ditzake horrek.

Ez dago proteinekin eta gantzekin lotutako edukiak barneratzeko eta aldi berean kontsumitzaile arduratsu baten ohiturak hartzeko modu hoberik”. (Enric Roca. Pedagogian katedraduna Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan).

- “Haur eta gazteek denbora libre behar dute; bai, libre, etxeko lanik gabe eta eskolaz kanpoko jarduerarik gabe, erabat libre, benetan grina pizten dieten gauzak ikasteko, elkar ezagutzeko, jolasteko eta hausnartzeko. Eskolatik kanpo jarduera askoren zama ipintzen badiegu, ezin izango dute euren denbora interesatzen zaien gauzetarako erabili. Ez al dute denbora nahikoa igarotzen eskolan, lan-ohiturak bereganatzeko? Edo, akaso, helduok gure lana jardunalditik kanpo eramaten dugu, oporretara, adibidez, lan-ohitura horiek gal ez ditzagun?”. (David Castrillo. Lehen Hezkuntzako irakaslea eta Adimen Emozionaleko Hezkuntzan eta Neuropsikologia eta Hezkuntzan magistratua).

### Ikerketak

Artikulu honen hasieran esan bezala, gehienok ez dugu zalantzan jartzen etxeko lanen baliagarritasuna, uste baitugu onuragarriak direla ardura, diziplina, lan-ohiturak, eta abar lortzeko. Hala ere, Alfie Kohn-ek bere “The homework myth” (“Etxeko lanen mitoa”) liburuan azaltzen duenez,


## GALDEIDAZU: ETXERAKO LANAK

inongo onurarik ez dutela sortzen diote ikerketa ugari.

- 2006an, Dukeko Unibertsitatean egindako 180 ikerketa baino gehiagoren berrikusketan, etxeko lanen eta arrakasta akademikoaren artean korrelaziorik ez dagoela aurkitu zen.
- 2006an Scholastic eta Yankelovich-ek egindako inkesta baten arabera, etxeko lanak dira 8 urterekin irakurketarako grina maldan behera hasteko arrazoietakoa bat. Ipar Amerikako National Endowment for the Arts gobernu-erakundearen arabera, “bai banaka, bai gizartean izan beharreko jokaeraren eredu positibo baten adierazlea da irakurketa”. Erakundearen ikerketen arabera, borondatez irakurtzen dutenak kirolarekin eta artearekin harremana duten ekitaldietara joan ohi dira, kalean askotariko jarduerak egiten dituzte, eta irakurtzen ez dutenek baino kirol gehiago egiten dute.
- Hezkuntzaren arloan nazioarteko aditu gorentzat hartzen dute Harris Cooper, doktore da psikologian, eta psikologiako irakaslea da Dukeko Unibertsitatean. Etxeko lanen inguruan egin zuen ikerketa batean, honako hau ondorioztatu zuen: etxeko lanen eta arrakasta akademikoaren artean dagoen korrelazioa oso txikia da Lehen Hezkuntzan, eta soilik neurritsua, berriz, Bigarren Hezkuntzan.

### Neuropsikologiaren ikuspegitik

Ikaskuntza zuzena izan dadin, hiru elementu dira beharrezkoak: arreta, oroimena eta motibazioa. Hiru elementu horiek lortu ahal izateko, berriz, Nerbio Sistema Zentralaren (NSZ) garapena bermatu behar da. Izan ere, horrek inguruarekin duen interakzioari esker sortuko da antolaketa neuronalak. Haurrari iristen zaizkion askotariko informazio-sarrerak prozesatu eta landuko dituen eta erantzun motor bat emango duen neurona-sare konplexu bat sortuko du elementu horien arteko konbinazioak, eta haren portaera osatuko da horrela. Horretarako, jaiotzen garenetik heltzen garen arte garuna nola garatzen den jakin behar dugu. Garatzen hasten den lehenengo sistema, zerebeloa, mugimenduen koordinazioaz arduratzen da, eta sistema vestibularrak dira orekaz eta gorputza eta bereziki burua espazioan



1. irudia: lau lobuluaren kokalekua.

kokatzeaz arduratzen direnak. Biak motrizitatearen eta jolasaren bidez garatzen dira, ekintza horien bitartez sortzen baitira lehenengo konexio neuronalak. Garunak, gainera, goranzko eta atzetik aurrerako garapena du, eta honako eremu hauek garatzen ditu, hurrenez hurren (1. irudia):

- **Lobulu okzipitala:** berorren egin-kizun nagusia ikusmen-estimuluak integratzea da.
- **Lobulu parietala:** espazio-orientazioaren, kalkularen eta ukimenaren bidez, integrazioaz eta eremu propiozeptiboaz arduratzen da batik bat.
- **Lobulu tenporala:** haren eginkizun nagusia hizkuntzaren, oroimenaren eta entzumenaren integrazioa da.
- **Lobulu frontala:** funtzio exekutiboak dira nagusi hemen (planifikatu, helburuak jarri, laneko oroimena, erabakiak hartu, emozioak doitu, arreta, motibazioa, hizkuntza motorra...).

Garatzen diren azken zatiak alde frontala eta aurrefrontala dira. Horiei esker, gai gara erabakiak hartzeko, gure ikasketa-planak antolatzeko, egiten ditugun lanetan arretari eusteko, pentsatzeko, hitz egiteko, eta abarretarako. Hala ere, ez du behar bezala funtzionatuko, alde aurretik ez badira beste zatiak ongi garatzen. NSZn heldutasun falta badago, ondorioak izan ditzake aurrerago eskolarako gaitasunean, eta arazoak sor ditzake arreta faltan, hizkuntzaren ulermenean, idazketan, kalkuluan, oroimenean, eta abarretan.

Halakorik gerta ez dadin, ezinbeste-

koa da haurrek oinarri neurobiologiko sendo bat izatea. Neurozientzian doktore den Maria J. Lópezek azaldu duenez, ikasketa-prozesuaren oinarri neurobiologikoak entzumenaren, ikusmenaren eta motrizitatea dira (2. irudia). Ikusmenaren, entzumenaren eta motrizitatearen arloetako tresna horiek izango dira lehenen garatuko direnak, baina ez hori bakarrik; beraien artean interakzio bat osatuko dute, eta, horri esker, tresna gehiago sortuko dira. Esaterako, entzumenaren eta motrizitatearen arteko interakzioarekin, aho-hizkuntza garatuko da. Motrizitatearen eta ikusmenaren arteko elkarrekin, orientazio espaziala garatuko da. Ikusmen- eta entzumen-tresnek soinuaren fonemak eta letren grafiak deskodetzea ahalbidetuko dute. Interakzio hori beharrezkoa izango da eskolan lantzen diren lanak burutu ahal izateko, eta horiek garatzeko eskain dezakegun laguntzarik onena entzumen-, ikusmen-, ukimen-, propiozeptibitate- eta motrizitate-estimulu asko ematea da. Zentzumenaren integrazio on baten eta NSZren garapen egoki baten menpe dago Lehen Hezkuntzako ikasle batek fase horrek dakartzan eskakizun guztiei aurre egin ahal izatea.

Zientziari esker eta, bereziki, neurozientzian, neurobiologian eta neuropsikologian egindako azken ikerketei esker, badakigu, esan bezala, hau guztia ahalik eta estimulu gehien eskainiz lortzen dela. Horrek esan nahi du haurrek mugitu, probatu, bizi

eta, nola ez, huts egin behar dutela. Horretarako, umeek, jaiotzatik, tresnari indartsuenetako bat dakarte, jolasa, hain zuzen ere, nahiz eta askotan ez diogun ematen behar besteko baliorik. Jolasaren bitartez, haurrak ikertu egiten du; bere neuropsikomotrizitatea garatzen du; ukitu, ikusi, usaindu, sentitu eta entzun egiten du; harremanak egiten ditu, sozializatu egiten da, etab. Hots, IKASI EGITEN DU. Gainera, bizitzako lehenengo sei urteak garrantzi handikoak dira, adin horretako haurrek duten neuroplastikotasuna heldu batek duenaren bikoitza baita. Horrek esan nahi du adin-tarte horretan konexio neuronal asko eta asko sor ditzakegula.

### Ondorioa

Esandako guztia aztertu ondoren, honako hau ondorioztatu dugu: haurren garapen naturala errespetatu behar dugu, eta denbora libre utzi behar diegu, ikertzeko eta nahi duten moduan erabiltzeko, haurrak kurioak dira eta jaiotzetik. Denbora libre daukan haur batek benetan maite dituen gauzetarako erabiliko du aisialdia. Hau da, emozio gehien sortzen dizkion gauzetarako. Emozio, Franciso Moraren arabera eta ikerketa ugari aditzera ematen dutenez, energia indartsu bat da, zirkuitu neuronalen jarduera kodifikatzen duena eta bizirik mantentzen gaituena. Emozioek gauza berriak aurkitzeko interesa pizten dute, eta interes horri eusten diote, hasi elikagai edo etsai batetik eta ikasgelan suerta daitekeen edozein ikaskuntzataraino. Emozioak dira, beraz, oroimenaren eta ikaskuntza-prozesuen oinarririk garrantzitsuenak. Gainera, emozioek, beste zereginen artean, edozer gauza oroimenean hobeto gordetzeko eta gordetako informazioa errazago gogoratzeko balio dute, eta gauza jakina da hori, egun, neurozientzian. Gaur egun, “itzalaldi emozionalaz” hitz egiten da, haur askok bizi baitu horrelakorik eskolaldiko fasearen uneren batean; eta fenomeno horrek harreman estua dauka gure gizartearen bizi dugun estresarekin. Estresak estutasun mental inkontziente bat sortzen du haurra berran buruan, eta, hainbat egunetan errepikatzean, aldaketak eragiten ditu ga-

runaren neurokimikan; hipokanpoari (oroimen emozionala gordetzen den lekua) eta horrelako egiturei kalte egiten die horrek. Azken batean, kalte egiten zaie oroimenari eta ikasteko prozesuei. Horrekin esan nahi dut izugarrizko zuhurtzia izan behar dugula etxeko lanak ematerakoan, horrelakorik gerta ez dadin.


Nik ez dut uste benetako eztabaida etxeko lanak BAI ala EZ erabakitzean datzanik. Hala ere, bietako bat aukeratu beharko banu, ezezkoa izango litzateke erantzuna, zalantzarik gabe. Izan ere, etxeko lanek libreki garatzeko denbora kentzen diete haurrei, eta nire ustez ongi egiaztatu dut hori. Benetan, honako gai hauetan jarri behar dugu arreta: ZER-NOLAKO etxeko lanak aginduko ditugu? ZENBAT? NOLA? Eta ZERTARAKO izango dira? Lehenik eta behin, ez genioke Haur Hezkuntzako inori etxeko lanik agindu behar, nire iritziz apalean. Ezta Lehen Hezkuntzan ere, azken ikasturtera edo azken aurrekora arte behintzat. Baina, etxeko lanen alde egitekotan (berriro diot ez nituzkeela aginduko Lehen Hezkuntzako azken urtera arte), oso ongi antolatu, egituratu eta aztertu behar lirateke, eta horietako askok ikertzeko helburua izan behar lukete, kalera atera eta inguratzen dituen mundua eta gizartea ikertzeko. Gainera, ez genieke guztiei berdina agindu beharko, baldin eta lantzen ari garen gai horretan guztiak oso motibatuta nabari ez baditugu; izan ere, bakoitzak bere gustu eta irrikak ditu. Etxeko lanek ez lukete inola ere ikasgelan egindakoaren errepikapen hutsa izan beharko, eta, are gutxiago, eskolan bukatzeko denborarik izan ez dugun hori etxean egiteko aitzakia.

Hainbat eskolatan, programatuta dituzte egunero agindu behar dituzten etxeko lan motak, eta arduragabekeria galanta iruditzen zait hori. Irakasleok dugun eztabaida handienetariko bat ikasleak motibatzeari buruzkoa da, eta argi dago ez dugula horrelakorik lortuko lan errepikakorrekin. Horretan sinesten dutenek argudiotzat diote ikasitakoa sendotzeko balio dutela eta, errepikapenaren bidez, ikasi egiten dutela azkenean. Egia da errepikapena ikasteko bide bat dela, epe motzeko oroimenean dugun informazioa epe

**Haurren garapen naturala errespetatu behar dugu, eta denbora libre utzi behar diegu, ikertzeko eta nahi duten moduan erabiltzeko, haurrak kurioak dira eta jaiotzetik. Denbora libre daukan haur batek benetan maite dituen gauzetarako erabiliko du aisialdia.**

luzerako oroimenean sartzea lortzen baitugu, bide neuronal berak behin eta berriro estimulatzean. Hala ere, behar-beharrezko edukiak ikasi behar ditugunean soilik balio digu horrek; baina, ikasleren batek ez badu ongi ulertu egun horretan landutakoa eta horri buruzko etxeko lanak bidaltzen badizkiogu, arazoa ez da desagertuko. Bai, errepikatu behar dute; baina eskolan, tutore edo irakaslearen aholkuarekin, beraiek baitira curriculum eta beharrezko teknikak ezagutzen dituztenak.

Oso ohikoa da, adibidez, irakurritakoaren ulermenean arazoak dituzten ikasleekin irakurritakoa ulertzeko ariketa gehiago jartzea (testu bat irakurtzea eta galdera zehatz batzuei erantzutea). Hala ere, ez da oinarriko arazoa desagertuko asko irakurri arren; irakurmenari garrantzirik kendu gabe, noski, irakurtzeko gaitasuna lortzea oso garrantzitsua baita (horregatik, familiaren esparrutik bultzatuta egunero irakurtzea proposatzen dut). Buruko mina dugunean Ibuprofeno hartzarekin pareka dezakegu hori. Mina estaliko digu horrek, baina ez du buruko mina sendatuko. Gauza bera gertatzen da ikasketa-prozesuarekin. Arazoaren sintoman lan egitean (horixe da izaera errepikakorra duten etxeko lanek egiten dutena), ez da desagertuko arazoa bera. Egia da arazoa ez handitzen lagundu dezaketela, baina badugu frustrazio bat sortzeko arriskua ere, eta, beraz, motibazioari kalte egin diezaioke horrek. Egin behar dena zera da: arazoaren oinarria zein den aurkitu, ebaluazio neuropsikologiko oso bat eginez



2. irudia: Ikasketa prozesuaren oinarri neurobiologikoak.

horretarako, eta abiapuntu horretatik lan egin, esku hartzeko programa on batekin eta ariketa zehatzekin heldu ez den garun-atala estimulatzeko. Izan ere, irakurketa-prozesu batean, leku askotan egon daiteke arazoa, hala nola ikusmen-sisteman (begietako motrizitatea, konbergentzia, akomodazioa, mugimendu sakadikoak), entzumen-sisteman (hizkuntzaren ulermen-zonaldeak ezkerreko lobulu tenporalean daude, Wernicke-ren arean, eta, beraz, irakurtzen dutena ez badute ulertzen, oso garrantzitsua da entzumena ere indartzea, gehiago irakurtzera behartu ordez), lateralitatearen heldutasun faltan edo beste arloren batean. Kasu horretan, etxeko lanak emango genituzke beharbada, baina lan zehatzak eta pertsonalizatuak, haur bakoitzaren beharretara egokituak; hor bai, hor egin dezakegu aurrera.

Bukatzeko, motibazioaren gaira itzultzea gustatuko litzaidake. Motibazioa gure jarrera pizten duena eta ekintza bat egitera bultzatzen gaituena da. Pintrich-ek (1989) eta Pintrich eta De Groot-ek (1990) proposatutako ikerketen esparru teorikoak aztertzen baditugu, ikus dezakegu hiru osagai daudela: itxaropena, balioa eta afektibitatea. Ikasleek jarduera bat egiteko dituzten sinesmen eta aukerei egiten die erreferentzia itxaropenak. Osagai hori galdera honen bidez itzul daiteke: gai naiz lan hau burutzeko? Balioaren osagaiak ikasleen helburu


eta helmugak markatzen ditu, eta egiten ari diren lanaren garrantziarekiko sinesmena ematen die. Honako galdera honen bidez itzul daiteke: zergatik ari naiz hau egiten? Afektibitateak jardueraren aurrean ikasleek duten erantzun emozionalari egiten dio erreferentzia. Osagai hau honako galdera honen bidez itzul daiteke: nola sentitzen naiz jarduera hau egiterakoan? Argi dago gai bat lantzerakoan irakaslearen zeregina ahalik eta modu interesgarrienean egitea dela; eskola-ordua ipuin bihurtu, eta askotariko ariketak eskaintzea, ikasleen arreta erakartzeko. Oraingoan, ordea, artikulua honen ardatz nagusian jarriko dut arreta, etxeko lanetan, hain zuzen ere. Askotan, etxeko lanen bat agintzerakoan, ikasleen erreakzioa hasperen handi bat izan ohi da –neure esperientziagatik diot–, eta motibazio falta izugarria adierazten du horrek. Jakin-mina galtze horrek ikasleak jarrera ezkorra eta interes faltara zokoratzen ditu. Etxera eramaten dute hori, gainera, eta gurasoek aginte bidezko ereductara jotzen dute etxean; eredu horiek, ezertarako balio ez izateaz gain, egoera gatazkatsuagoak sortzen dituzte.

Honekin guztiarekin, esan nahi dut ume bat Haur Hezkuntzan hasten denean edo Lehen Hezkuntzako lehendabiziko urteetan dabilenean, oso motibatuta, jakin-minez eta galderez beteta dagoela; fase hori bukatze-

rakoan, ordea, hori guztia galduta dago kasu askotan, eta horrek eragina dauka hurrengo faseetan. Aurten Eustatek argitaratutako txosten batean, honako datu hau zetorren: “Espainia Europako buru da eskola-porrotari dagokionez, 18 urtetik 24ra bitarteko gazteen % 21,9k eskola uzten baitu; eta, asko jota, Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloa gauzatzen dute”. Zertaz ez gara ohartu? Zer ari gara egiten Lehen Hezkuntzako sei urte horietan, hori gerta dadin? Zalantzarik gabe, erantzuna ez dugu aurkituko leku bakar batean, gauza asko hartu behar baitira kontuan. Baina, nire iritziz, horietako bat etxeko lanak dira; zehatzago esanda, agintzen ditugun etxeko lan motak, ez baitute ikasteko grina pizten, kontrakoa baizik. Akaso, ez al dira aski eskolan igarotako 5 ordu luze horiek? Azter dezagun une batez haurren jardunaldia. Gutxienez 25 ordu igarotzen dituzte astean zuzeneko eskolak jasotzen; gehitu horri eskolaz kanpoko jarduerak (oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit, batez ere, motrizitatearekin eta manipulaziorako gauzekin zerikusia dutenak: kirola, artea, sormena edo instrumentu bat jotzea kasu, onura kognitibo eta “konexio” ugari sortzen baitituzte); eta gehitu horri bataz beste etxeko lanak egiteko behar duten denbora, ordubetetik bira bitartekoa (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak egiaztatu zuenaren arabera, Espainiako ikasleek astean 6,5 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, eta Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenak adierazi du ikasleek egunero etxeko lanetan egiten duten denbora, batez beste, 1,7 ordukoa dela); kasu askotan, gainera, jantokiko denbora eta autobusekoa ere zenbatu behar dira. Begi-bistakoa da Lehen Hezkuntzako ikasle baten jardunaldia heldu batena baino astunagoa dela; eta, haur baten ikuspegitik, trukean “ezer” jaso gabe.


Ikuspuntu horrek ondorio honetara narama: arratsalde asko etxeko lanez betetzen baditugu –jada beteta izan ohi dituzte beste ekintza batzuekin–, emozionalki eta intelektualki indartsu, osasuntsu eta gizaki oso bezala garatzeko aukerarik garrantzitsuena ukatuko diegu: JOLASA.

# ARGITALPENAK



## HARTU ETA EMAN

Lucie Felix



## AZAZKALO

Margarita del Mazo



## ADA GOTH ETA ULU MISTERIOTSUAK

Chris Riddell

### TTARTTALO

Orrialdez orrialde, jardueraren bat egitera gonbidatuko du egileak irakurlea. Horixe baita liburuaren helburua, har eta mugi daitezkeen piezekin jolastea. Jolastea eta kontrajarriak diren ekintzak ezagutzera emateko. Kartoizko liburu interaktibo bat da, eta 16 orrialdek osatzen dute.

### TXALAPARTA

Bazen behin azazkalak sekula mozten ez zituen azti bat, eta labanak bezain zorrotzak zituen. Azazkalo zuen izena, eta haurrak ehizatzen zituen. Behin, baina, haur baten lagun egin zen. Liburuak Azazkaloren eta bere hurrengo biktima behar lukeenaren arteko lagun-tasun istorio hori kontatzen du.


### IBAIZABAL

Ada Gothen aitak txakurrentzako literatura lehiaketa antolatu du: idazle ezagunen txakurrek parte hartuko dute lehiaketan. Hainbat tranpa egingo dute, barnealdeko basozain ilun Maltraversen txakurrek irabaz dezaten. Ulu misteriotsu batzuek, ordea, airean jarriko dute jaialdia.



## EURIA EGIN ONDOREN

Miguel Cerro



## NUR ETA ALTXORRAREN KUTXA

Toti Martinez de Lezea



## PUZKERTIN

Xabier Mendiguren Elizegi

### KALANDRAKA ETA PAMIELA

Basoa urpean hartuko du uhode batek, eta hango biztanleak aurrera ateratzeko ahaleginetan ariko dira behin-behineko babesleku batean. Azeri txiki batek bere burua eskainiko du, jan eta ura biltzeko. Taldea, baina, ez da fidatzen ez haren gaitasunez ez asmoez, eta beste batzuei ematen dizkiete lan horiek.

### EREIN

Olaturik ez dago eta begiraleak erabaki du paddle-surf egitea. Nurri ez zaio askorik gustatzen, nahiago du olatu handiak hartu. Ogoñoako lurmuturra dago hondartzaren amaieran. Nurrek beti jakin nahi izan du zer dagoen beste aldean: munstroak, krokodiloak, lamia-aren bat... edo, altxorra, agian?

### ELKAR

Peru eta Marixe bikote maitemindua da. Peru handia da; Marixe txikia. Peruk beroa du beti; Marixek hotza. Gauetan, puzkerrak botatzen ditu Peruk ohean; Marixe galtzerdiekin sartzen da ohera. Peruren puzker bat Marixeren galtzerdira sartuko da, eta Puzkertin izakia sortuko da elkartze horretatik.

# PROPOSAMENA

## TXANTXARIAK TELEBISTA SAIOA

### Eduki pedagogikoak eta kalitatezkoak

Urtxintxak, 3-8 urte inguruko haurrei zuzenduriko telebistako kapitulu berriak prestatu ditu. 'Txantxariak telebista' izenez ezagutzera emango dira, eta urtarriletik apirilera Euskal Herriko tokiko telebistetan ikusteko aukera izango da. Horretaz gain, 'www.txantxariak.com' webgunean ere eskuragai egongo dira.



**B**este urtebetez, *Txantxariak Telebista* saioaren kapitulu gehiago sortu ditu Urtxintxak haurrei eduki entretenigarriak eta pedagogikoak eskaintzeko xedez. Haurrentzako ekoiztako euskarazko saioen eskasiari aurre egin nahi dio proiektu honek.

Telebista saio hauen bitartez, heziketaren ikuspegitik kalitatezko edukiak helarazi nahi zaizkie haur, hezitzaile zein gurasoei. Izan ere, Atzio Orea Urtxintxako koordina-

tzaileak azaldu bezala, telebista saio horiek haurren heziketa prozesuan eragile aktibo izateko sortu dituzte: "Haurrei ekarpen bat egin nahi izan zaie. Horrexegatik, haiekiko errespetua eta begirunea aintzat hartu ditugu kapitulu bakoitzeko edukiak diseinatzekoan".

Azken batean, Urtxintxak, aisialdia hezteko baliagarri dela frogatu nahian, bertan sortu eta ekoiztako telebista saio bat euskal eskola eta familien eskura jarri nahi izan du, ai-

sialdiaren erabilera positibo eta hezitzaile bat eskaintzeko asmoz. "Gure helburua haurren jakin-mina asetzen duten gaiak eta egunerokotasunean izaten dituzten kezak lantzeaz gain (gaua, loa, beldurrak, erabakiak, gaixotasunak, musika, zahartzarua, berrerabilpena, akatsak, desioak, ametsak, konfiantza, hizkuntzak...), telebistaren parean momentu atsegin bat pasa ahal izatea da. Eta, bide batez, kalean erabili ditzakegun jolasak transmititzen ditugu".




Jolasaren garrantzia ezagutzera eman nahi du *Txantxariak Telebistak*. Horrez gain, euskarazko jolasak eta abestiak zabaldu nahi ditu, eta kaleak gizarteratzeko gune garrantzitsua direla nabarmendu. Gainera, hainbat balio sustatzea du helburu, besteak beste, hauexek: Berdinen eta desberdinen arteko harremanen oparotasuna, norbanakoari errespetua, egunerokotasunaren plazeraren bizipena, haur eta helduen arteko harreman ludikoaren aberastasuna, emaitza jakinik eskatzen ez duten epairik gabeko jarduerak...

Orexak esplikaturako moduan, kapitulu bakoitzak interesgune zehatza du, eta saio bakoitzeko atalek lotura zuzena dute lantzen den gaiarekin. Hala, kapitulu guztietan Txantxariak eta haurrak ikusi ahal izango dira hainbat ekintza egiten. Besteak beste, ondoko kapituluak aurreikusten dira: platoan grabatzen diren istorioak, kaleko jolasak, mundua ekarri, haurrak protagonista, eskulanak, erreportajeak, irratsaioak, ipuinak...

### **Txantxariak: munduan zehar, han eta hemen dabilzan pertsonaiak**

Braulio astoa lagun dutela, Mari Txipi, Arantxa Zabaleta, Antxon eta Txantxibiri Kamino dira *Txantxariak Telebista* saioiko protagonista. Pertsonaia horien laguntzaz, jolasten hasteko hainbat aukera proposatzen dizkie Urtxintxak haur, irakasle zein gurasoei.

Txantxarientzat jolasa bizitzen ikasteko era bat da. Hala diote [www.txantxariak.com](http://www.txantxariak.com) webgunean, euren aurkezpen testuan: “Jolasen bidez ikasten dugu gure buruari helburuak jartzen. Jolasa, pertsonen arteko harremanak errazteko modua da, taldeak osatu eta trinkotzekoa, lagundu eta lagundua izatekoa. Jolasa haur eta helduen arteko loturak estutzeko bidea da, bizitzaren alderdirik atseginez elkarrekin gozatzeko bitartekoa”. Horrexegatik, Txantxarien bitartez, ia ahaztuta dauzkagun jolasak gogora ekarri nahi dituzte, eta, horrekin batera, baita jolas berriak ikasteko aukera eman ere.



### **'TXANTXARIAK TELEBISTA' SAIOAREN KAPITULU BERRIAK**

#### **ZER:**

Haurrentzako ekoiztako euskarazko saioa, eduki entretenigarri eta pedagogikoak eskaintzea xede duena.

#### **NOIZ:**

2016ko urtarriletik apirilera

#### **NON:**

Euskal Herriko tokiko telebistetan eta [www.txantxariak.com](http://www.txantxariak.com) webgunean.



# ATZEKO ATETIK



## GURE BAZTERRAK

ITZIAR ITUÑO AKTOREA

**M**aite ditut maite gure bazterrak lanbroak ezkutaten dizkidanean...". Euskal Herriko bazterrak anitzak dira, baita ezkututzen dizkiguten lanbroak be.

Nire Basauriko bazterra, Kalero auzoa, ezkutatzen zuen lanbroa fabriketatik zetorren kea eta kutsadurarena zen. Berton hazi nintzen, bertan ikasi eta bizi. Berton jarraitzen dot, hau delako nik maite dudana bazterra.

1969. urtean Basauriko Arizko Ikastola sortu zen. Herrian egon den eta dagoen ikastola bakarra. Ni 1974an jaio nintzen herriko beste puntan. Guraso euskaltzaleak ditut eta bertan matrikulatzeko asmoa zuten, baina garai hartan ume mordo ginen eta ez zegoen denontzako lekurik. Guraso euskaldunak zituzten umeek zeukaten lehentasuna eta hori ez zen nire kasua. Ama, Piedad, naparra da, Oteiza herrikoa eta familiaren adar horretan euskera aspaldi galdu zen. Aita, Juan Manuel, bizkaitarra da, Basaurin jaioa. Bere aititek eta amamak Gamizetik fabrikara etorri zirenean beharrera apenas zekiten erderaz, eta ezjakinak baziren legez tratatu zituzten hiritarrek, mespretxuz edo aurpegira barre eginez. Euskararen katea apurtu zen, eten egin zen transmisioa seme-alabei ez zietelako irakatsi. Nire aita erdaldun peto-pettoa atara zen, beraz.

Horren ondorioz ni ezin ikastolara joan eta auzoko eskola publikoan, Kareaga Goikoa eskolan, egin nituen ikasketak, A erduan, besterik ez zegoelako. Ondo ikasi genituen han Espainiako ibaiak zeintzuk ziren, zeintzuk ziren errege katolikoak, nor zen "Colon" edo "El Cid",

nortzuk ziren Espainiako idazle ospetsuenak. Nafarroako Erresumaz, baina, inork ez zigun ezer kontatu. Gogoan dut "euskera" bera beranduago sartu zela ikasgai moduan, OHOk 6. mailan. Ingelesarekin batera etorri zen, biak hizkuntza arrotzak izango balira moduan. Horren txikia zen euskarari hezkuntzan eskainitako lekua, bai eskolan bai institutuan gerora be, ezen ikasketak amaitu nituenean esaldi pare bat jarraian botatzeko gauza be ez nintzela.

Hori bai, zerbait ikasi bagenuen euskara, irakasleei esker izan zen. Ordu eskas horietan euskara baino gehiago irakasten zigutelako. Euskal kantak, mitologia, dantzak, euskal historia... Javi irakasleari esker jakin nuen gure tribuak zeintzuk izan ziren. Karistioak, Autrigoiak, Akitanoak, Barduloak eta Baskoiak. Edortari esker jakin nuen Basauri berbak basoko uri esan gura duela eta Marisak jota eta arin-arina dantzatzen erakutsi zigun. Isabelak Mari, Tartalo eta lamien istorioak kontatu zizkigun eta *Hator Hator* kanta irakatsi... "euskera" irakasle nekazekin horiei esker jakin-mina, gehiago jakiteko grina, piztu zen ume erdaldun peto haien bihotzetan eta, urteen buruan, orduko heziketa-sistemak emon ez ziguna gure kabuz lortzeko asmoz euskaltegian elkartu ginen berriro asko eta asko.

19 urtekin hasi nintzen ni euskera ikasten AEKren bigarren urratsean, gogotsu eta burubelarri. Euskaldunberriak gara ama eta biok orain. Aitak ez zuen lortu, burua lar gogorra duela dino, baina aspaldian hautsitako euskararen katea konpondu dogu familian euskaltegiari esker.

Badakit gauzak asko aldatu direla. Gaur egun Kareagan, nire eskolan, D erdua da nagusi! Aurrerapauso handia da hori, dudarik ez, baina kalean giro erdaldunak gogor eta tinko eutsi du hemen. Nekez entzungo dozu auzoan inor euskaraz berbetan eta umeek eskolan bakarrik eta muturra okertuta egiten dute, behartuta moduan.

Kontrakoa bazirudien be euskeraren biziraupena ez dago bermatuta Euskal Herriko bazter honetan. Ez dakit zer gertatu den, zer galdu dugun bidean, zerk hutsegin digun... maitatu beharrean zergatik bizi dute belaunaldi berriek euskara inposaketa baten legez? Zelan emon horri buelta?

Kezka hori izanik buruan, orain dela lau urte, hemengo euskaltzaleok ekimen eder bat bultzatu genuen Lasarteko ereduari jarraituz. "Euskarabila" euskara elkarte gidari, *Basaurin be bagara* herri ekimena sortu zen. Hamabi orduz euskeraz baietz! horixe baietz! Egun majiko hartan herriko mota guztietako pertsonak eta elkarteek kirola, dantza, musika eta artea egin genuen euskeraz... ume, gazte eta zahar, danok batera ibili ginen plazan euskeraz egiten ametsa egi bihurtuz. Arbasoen lehengo Basauri euskaldun hura berpiztu egin zen eta, une batez, argi ikusi genuen etorkizuna. Basauri euskaldun bat. Horren indartsua izan zen egun hartako energia, euskeraz ez zekitenak be euskeraz egiten saiatu zirela.

Eta horretan gabiltza lanean gogor, apurka apurka baina bidea eginez lanbroak ezkutatutako bazter miresgarri honatako jendeok!

# Berdean hezi

haurrak naturara hurbiltzeko ideiak

Heike Freire



Gaur egungo haurrek leku itxietan ematen dute denbora gehiena, eserita eta pantaila bati begira. Helduak segurtasunarekin itsuturik daude... Egoera horren aldaketan inplikatzeko prest dauden pertsona, guraso eta hezitzaile guztiei zuzenduta dago liburu hau.

Eskaera egiteko: **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)**



## “Eskoletako Hezkuntza Proiektuak” jardunaldiak

### Ezagutu AMARA BERRI eskola bertara joanez

OTSAILaren 26an, ostirala, 18:00etatik 20:30era

**Aurkezpen orokorra:**

- 35 urteko ibilbidea.
- Hezkuntza Proiektua.
- Ezaugarri metodologikoak.
- Amara Berri Sarea.

OTSAILaren 27an, larunbata, 9:30etik 13:30era

**Gaikako Ibilbideak: aurkezpenak eta bisitak geletara**

- Haur Hezkuntza.
- Hizkuntzen trataera (euskara, gaztelania eta ingelesa).
- Matematika eta Zientzia, eskola aktibotik kompetentzietara.
- Hedabideak eskolan: telebista, egunkaria, internet...

**Mahai ingurua**

- Aurrera begira: zailtasunak, aukerak, erronkak...

**DONOSTIAko MORLANSEko ikastetxean egingo dira jardunaldiak (Morlans pasealekua, 1).**

Informazioa eta izena ematea: **[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)**